



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko maiatzaren 5a | XXXVI. urtea | 661. zenbakia

**Herrietako bestak**  
Berroeta eta Goizuetako  
Txino auzoan → 31-26

**DONEZTEBE → 18**  
Udaberriko Feria eginen  
dute maiatzaren 6an

**DONAMARIA → 19**  
Kulturaldia prest dute  
maiatzaren 13tik 15era

**GOIZUETA → 26**  
Haur, guraso eta eskolen  
arteko XVII. topaketak


**BAZTAN → 29**  
Lekarozen eskola izanen  
dute heldu den iraillean



Maiatzaren 14 eta 15ean  
Arantzako  
I. Mendi Lasterketa  
eta VIII. Mendi Itzulia

Ipar Euskal Herriko Elkargoa | ERREPORTAJEA → 4-5

## Instituzio propioa lortzeko atarian da Ipar Euskal Herria



Ipar Euskal Herriko 158 herrietako herriko kontseiluak elkargo bakarrean bildu nahi duten ala ez erabakitzen ari dira bozketak eginez. Herrien erdia alde baldin bada eta aldeko botoek biztanleriaren erdia ordezkatzan badute, 2017ko urtarriaren 1ean Ipar Euskal Herri mailako herri elkargoa sortuko da, Euskal Herri Elkargoa izenekoa.

Herriko kontseiluak hilabete honen bukaera arteko epea dute bozketak egiteko. Eskualdean, Sara eta Senpereko hautetsiek aho batez elkargo bakarren alde egin dute.



**ELKARRIZKETA → 3**  
Alabaren ospitale-  
ratze eta gaixota-  
sunaren proze-  
suan amen foro  
batean idatzi  
zuen bilduz,  
*Luchando con  
Simone* liburua  
argitaratu du  
Nuria Canok.



**SENPERE → 33**  
**'Jalgi' lelopean  
maiatzaren 8an  
eginen da Herri  
Urrats Senpereko  
aintziran**  
Bildutako dirua  
Bernart Etxepare  
Lizeorako izanen  
da. Eraikin berri bat  
sortzeko proiektua  
abiatua dute eta  
ikastetxe berria  
2017rako egina  
nahi dute.

ZOKKETAK → 44



Txartela egiteko deitu  
948 63 54 58ra.



**berako agenda**  
**.net**

f b

**Maiatza**

**berako agenda**

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo [www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)

BERAKO UDALA berako kultur batzordea

**14** LARUNBATA  
**ANTZERKIA ETXEKOAK** (Artedrama eta Huts Teatroa)  
20:00 Kultur etxean  
Sarrera: 6 €

Antolatzaileak: Berako Bankara Batzordea eta Bortzietako Bankara Mankomunitatea  
Laguntzaileak: Bunka Kultur Batzordea eta Naifarromiko Antzerki Zareoa



**20** ORTZIRALEA  
Baztan-Bidasoko XXIX. Bertsopaper Lehiaketa: azken eguna parte hartzeko

**21** LARUNBATA  
**DOKUMENTALA NESKATOKAK**. Emakumeak Ipar Euskal Herrian lanean, frankismo garaian (Jon Aburik zuzendua)  
19:00 Kultur etxean

Antolatzaileak: Bortzietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Laguntzaileak: Energia Olatzak - Donostia 2016  
Argibide gehiago: [www.neskatokak.eus](http://www.neskatokak.eus)



**29** IGANDEA  
**XXXIX. FELIX ERRANDONEA MEMORIALA**  
Junior kategoriako txirrindularitza proba  
Luzera: 75,1 km  
10:30 Eztegarara pasealekuan (hasiera eta helmuga)

Antolatzaileak: Gure Txokoa Elkartea

**31** ASTEARTEA  
2016ko Berako Bestetako azala lehiaketa: azken eguna lehiaketan parte hartzeko

**ANTZERKIA: MUGAZ GAIN JAIALDIA**  
Maiatzak 12-13 DBH  
Maiatzak 19-20 LH  
Antolatzaileak: Antzerki eta eskola Elkarteak

**Musika eskolako ekitaldiak**

**06** ORTZIRALEA  
**EMUSIK BERAN**  
Talde parte-hartzaileak: Berako Abesbatza eta Banda, Alemaniako orkestra bat, Austriako jazz-banda bat, Holandako arpa talde bat (jazz estilokoa) eta Valentziako gazte banda bat.  
17:00-19:00 Toki Onako patioan (euria egiten badu, Altxateko frontoian)

Antolatzaileak: Donostia 2016 eta Eskolara Pagaera Udal Musika Eskola

**13** ORTZIRALEA  
Pop-rock entzunaldia  
17:00  
Musika Eskolan

**17** ASTEARTEA  
Haize-instrumentuko entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**18** ASTEAZKENA  
Gitarra entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**20** ORTZIRALEA  
Trikitixa/Akordeoi entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**24** ASTEARTEA  
Piano entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**25** ASTEAZKENA  
Perkusio entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**31** ASTEARTEA  
Biolin entzunaldia  
18:00  
Musika Eskolan

**ELIZONDO LANBIDE ESKOLA**  
*Lan egin zure gustuko lanbidean!*  
**MAIATZAREN 9tik 13ra**

**AURREMATRIKULA**

GOI MAILA - ERDI MAILA - OINARRIZKOA

**ADMINISTRARITZA**

ERDI MAILAKO ZIKLOA

**MEKANIZATUA**

TEKNOLOGIKOA—ZIENTIFIKOA

**PRESTAKETA**

OINARRIZKOA

**SOLDADURA**



Simone alabaren ospitaleratze eta gaixotasunaren prozesuan amen foro batean idazten aritu zen Etxalarren bizi den Nuria Cano eta orain, lau urteren buruan, orduan foroe-

tan idatzitako historia bilduz *Luchando con Simone* liburua argitaratu du. Bi urte «luze eta gogor» izan zirela adierazi du, baina esperientzia hari esker aunitz ikasi duela

kontatu dio TTPI-TTAPARI: «eguneroko gauza tikiak pozik bizi nahi ditut, helburuak buruan, eta berri txarrak etortzean, aztertu eta aitzinera begiratu».

Nuria CANO | 'Luchando con Simone' liburuaren egilea

# «Bizitzak ez du abisatzen, laburra da, eta intentsoki bizi behar dugu»

G. PIKABEA | ETXALAR

## Zerk bultzatuta ateratu duzu liburua?

Liburua kasualitatearen emaitza izan da. Simone-ren ospitaleratze eta gaixotasunaren prozesuan amen foro batean idatzitua nuen. Neurri batean, amatasuna bakartia da, eta pantailaren bertze aldean esperientziak aditzen egoteak lagundu egiten du. Pantaila zurian zer gertatzen zaigun idazteak erlatibizatzen laguntzen du, arazoari distantzia ematen, hain traumatikoa ez ikusten... Nik bi urte luze eta gogorretan idatzitua nuen eta hagitza erabilgarria izan zen. Denbora batera, foroan zegoena bere horretan argitartze batera bidali nuen eta argitartetxeokari gusatu egin zitzaion.

## Bi urtez foroan idatzitua zenuena da liburuan aurkituko duguna?

Bai. Irakurle bakoitzak zerbait desberdina aurkituko du. Batetik, zerbait gogorra aurki dezake, haurraren gaixotasuna, adibidez. Egun bakoitzean ez nekien zer gertatukozen biharamuneari, eta ziurgabetasun hori liburuan ikusten da. Irakurleak izan dezakeen zalantza nik momentu hartan sentitu nuena da. Alde gogor horrez gain, espero dut, eta uste dut hori dela liburua argitaratu izanaren arrazoia, ekaitz horren erdian argi bat bazegoela ikustea, aitzinera egiteko beharra. Gaur



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Nuria Cano, argitaratu berri duen liburua eskuetan duela.

bizirik nago, aitzinera egin behar dugu, posible dugu. Mezu hori ere irakurtzea espero dut. Gaixotasunak ez daude gure esku, eta horrelakoak gaizki ala ongi ateratzen dira, baina borroka horren barrenean baikortasun eta argitasun puntu bat izatea nahi nuke. Izan ere, historiak aitzinera egin ahala, Simonerekiko maitasunak eta bizitzari buruz ikasteak, ospitaleko gorabeherak baino indar haundiagoa hartzen dute. **Zergatik hasi zinen foroan idazten?**

Seme zaharrena jaio eta hilabete batzuetara hasi nintzen, eta beraz, Simone jaiotzerako idazten nuen. Hasieran, arraroa egiten zitzaidan foroan idatzitua nire gauzak kontat-

## ZERGATIK FOROA?

«Simoneren historia foroan elkarbanatzea hagitza garrantzitsua izan zen eta txoko hori izan ez banu, aunitzez okerrago sentitu izanen nintzatekeen».

## LIBURUAREN MEZUAK

«Irakurleak zerbait gogorra aurki dezake, haurraren gaixotasuna, adibidez. Aldi berean, izan dezakeen ziurgabetasuna nik momentu hartan sentitu nuena da. Alde gogor horrez gain, espero dut ekaitzaren erdian argi bat bazegoela ikustea, aitzinera egiteko beharra».

za, baina bat-batean nirekin bat zectorren emakume talde bat aurkitu nuen eta amatasuneko esperientziak konpartitzen hasi ginen. Batzuetan, amatasunari buruz solastea zaila da. Gerta daiteke lagunik onenarekin amatasuna ikusteko modua ez konpartitzea, baina foroak laguntzen ahal du. Barrenak hustu, konpartitu, irri egin, buruan ditugun gauzak hausnartu... Pentsatu eta esperientziak elkarbanatzeko txoko bat izan zen foroa eta Simoneren historia elkarbanatzea hagitza garrantzitsua izan zen. Txoko hori gabe, aunitzez okerrago sentitu izanen nintzatekeen. **Simoneren haurdunaldia eta erditzea ongi jo-**

an ziren. Hilabete eta hiru aste zituenean gauzak aldatzen hasi ziren...

Hasieran prozesua zoragarria izan zen. Baina gero, Simone etengabe kaka egiten eta botaka hasi zen. Ez naiz sobera larritzen den horietakoa, baina ez zela normala ikusi nuen. Halakoetan okerrera pentsatzen dugu, eta gure kasuan, okerrera ere gerta zitekeen.

**Osasun sistema publiko garatua den herrialde batean biziko ez bagina, Simone ez zela zuekin egonen diozu...**

Bai, gogorra da, baina hala ez balitz Simone nire besoetan hil egingen zen. Horrek bizitzari buruzko perspektiba aldatzen du. Bizitzak ez du abisatzen, gaixotasun arrunt bat izan daiteke edo horrelako zerbait izan eta halako golpea eman. **Zertan aldatu zara?**

Pertsona bezala hobe naiz eta gauzak bertze modura ikusten ditut. Historia guztia ikasketa prozesu bat izan da. Hala, koak noiznahi gerta daitezke, baina hain hurbiletik ikusteak pentsarazi egiten du, garrantzitsuak diren eta ez diren gauzak badirela erakusten du, eta garrantzitsuak ez direnaren ez dela kezkatu behar. Arduratu bai, baina kezkatu ez. Sorpresa aunitz izan ditzakegu bidean, onak eta txarrak, baina bizitza laburra da, eta intentsoki bizi behar dugu, emozio positiboz.


HERRI ELKARGOA → SARA, SENPERE ETA AZKAINA

# Ipar Euskal Herriak lehen aldiz instituzio propioa lor dezake

Sara eta Senpereko hautetsiek aho batez elkargo bakarraren alde egin dute

158 herrietako herriko kontseiluak Ipar Euskal Herria elkargo bakarrean bildu nahi duten ala ez erabakitzen ari dira bozketak eginaz. Herrien

erdia alde baldin bada eta aldeko botoek biztanleen erdia ordezkatzeko badute, 2017ko urtarrilaren 1ean Euskal Herri Elkargoa sortuko da.



## G. PIKABEA | XARETA

Aitzinera doa Ipar Euskal Herrian HELEP (Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoa) edo herri elkargo bakarra sortzeko eztabaida. Joan den otsailean Frantziako Herriarteko Lankidetzako Departamendu Batzordeak elkargo bakarra sortzeko bidea zabaldu zuen bi baldintza ezarrita: baldin eta 158 herrien artean erdia alde baldin bada –158tik 79– eta aldeko botoek biztanleen erdia ordezkatzeko badute –150.000 biztanle–. Bi baldintza horiek bete zezaten, heldu den urte hasieran sortuko litzateke Ipar Euskal Herri mailako herri elkargo zabala, Euskal Herri Elkargoa izeneko.

Eta horretan ari dira orain herriko kontseiluak, hautetsien botoen bidez Ipar Euskal Herriko herri guztiak elkargo bakarrean bildu nahi dituzten ala ez erabakitzen. Bozketak maiatzaren 27 baino lehen egin beharko dituzte. Saran eta Senperen egina dute eta aho batez elkargo bakarraren alde agertu dira hautetsiak, joan den udazkenean egingako lehen galdeketa bezala. Hendaiarekin batera, Senpereko Herriko Kontseilua izan zen boz-

katu zuen lehendabiziko herria. Martxoaren 22an egin zuen eta hautetsi guztiak, 29ak, elkargo bakarraren alde agertu ziren. Saran martxoaren 25ean bozkatu zuten eta 23 hautetsiak, guztiak, alde agertu ziren. Hortaz, Sarako 2.565 biztanleak eta Senpereko 6.006ak baiezkoen multzora batuak dira. Lerro hauek idazterakoan Azkainen oraindik erabaki gabea zuten noiz egin bozketa.

Udazkenean egin zen lehen bozketa, eta aldi hartan nagusiki alde agertu ziren Ipar Euskal Herriko herriak: 113 batera-

tzaren alde, eta bertze 43 kontra. Bertzela erranda, biztanleriaren %66 ordezkatu zuten elkargo bakarrari baiezkoa eman zioten herriek.

## ASPALDIKO ESKAERA

«Iparraldearen instituzionalizazioaren gaia ez dela gaurkoa» baieztatu digu Azkainen bizi den Sébastien Castet Batera Plataformako kideak: «XVIII. mendearan bukaerari jadaneko, Garat anai-ek euskal departamendu bat sortzea eskatu zuten Parisen. Geroztik aukeratu galdu dira, bereziki emandako hitza jan

dutelako politikari batzuek. Mitterrandek 1981ean presidentzialetarako hautagai zelarik, adibidez». Horregatik, ondoko hilabeteak «historikoa» izan daitezkeela uste du: «Iparraldeak lehen aldiz instituzioa lorbaitezake. Aldi honetan pilota herriko kontseiluak dute teilatua...».

## PLATAFORMA

Batera Plataforma 2002an sortu zen lau aldarrikapenen inguruan: euskararen koofizialtasuna, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortzea, Unibertsitatea eta

lurraldearen ezagupen instituzionala. Azken aldarrikapen horren inguruan maiz agertu da plataforma azken urteetan. «Iparraldeko aldaketa instituzionaleri buruzko eztabaidak eta azterketak azken urteotan nagusiki hautetsien artean eraman zirenez, gan den uztailan Batera Plataforma erabaki zuen gai horren inguruan sozializazio lana abiatzea, informazio autobus bat antolatuz, Iparraldeko 158 herrietatik pasatuz», dio.

Batera Karabana azaro hondarrean abiatu zen eta itzuli osoa martxo erdituan bukatu zuen. Horren balantze «ona» egin du plataformako kideak: «herri guztietan bai herri-tarek bai tokiko hautetsiek ere, harrera ona egin digute, gan den urte hondarrean lehen bozka kontsultatiboan ezezkoa bozkatu zuten herrietan ere bai». Informazio autobus horrez gainera, antolatu diren 25 bilkura publikoak ere azpimarratu ditu: «ehunka herritar bildu dituzte. Herriz-herriko autobusa pasatzearen antolaketa, bilkuren prestatzea... hori dena ez zen posible izan Batera tokiko taldeak eta beren lan denboratik kanpo ore-



## ZERTARAKO?

«Elkargo bakarrek ekonomia, garraioa, euskarra eta kultura bezalako gaietan politika publiko eraginkorrak ahalbidetuko ditu».

## HELBURUA

«Elkargo bakarra lehen urratsa da Lurralde Kolektibitatearen lortzeko. Elkargoarekin alderatuta, Lurralde Kolektibitateak ahalmen gehiago ditu, kudeaketa errazagoa da eta demokratikoa da».

Sébastien CASTET  
Batera Plataformako kidea



nak eta orenak hartu dituzten autobus txoferrik gabe...».

**«BAIKOR»**

Abian den bozketaren inguruan baikor mintzatu zaigu Castet: «lehen bozka kontsultatiboan oinarrizten bagara, baikor izateko arrazoiak badira». Jakitun da «oraingo behin betiko bozka dela balio duena», baina espero du «berriz aldekoa nagusitzea eta ahalaz alde oraino handiagoarekin». «Lehenbiziko galdeketa badira zenbait herri bai ala ez bozkatu zutenak, baina dudakor zirenak, puntu batzuk argitzeak baitziren». Azaldu digunez, «azken hilabeteetan Hautetsien Kontseiluak antolatutako atelier tematikoetan 200 bat hautetsik eta frantses estatuko zerbitzuek parte hartu dute, fiskalitatea eta gobernantza bezalako gaiak jorratzeko. Pausatzen ziren galdera abantzu guzietan erantzunak eman zaizkie». Hala, «espero dezagun lan horrek azken dudak uxatu dituela eta oraingo galdeketa bai kopurua haundiagoa izanen dela».


Elkargo bakarra osatzearen onurez ere aritu zaigu: «ekonomia, garratza, euskara eta kultura bezalako gaietan politika publiko eraginkorrek ahalbidetuko ditu. Gaur egun, Iparraldeak hamar herri/hiri elkargo ditu eta garatzen diren politikek alde handiak izan daitezke elkargo batetik bertara. Elkargo bakarraren politika koherenteagoak eramanen dira, Iparralde mailan, hainbertzetan aipatzen diren kostaldearen eta barnealdearen arteko oreka eta elkartasuna zainduz».

Proiektuak, ordea, baditu kontrakoak ere: «kostaldeko herri handietan (Angelu, Miarritze...) eta Amikuze (Nafarroa Beherea) eskualdean bereziki»,

dio Baterako kideak: «zilegi da edozein proiektu sortzekotan delarik dudak ukaitea. Baina zalan-tza horiek eztabaidaren bidez argitzen dira, aldeko eta kontrako argudioak entzunez». Casteten irudiko, «Hautetsien Kontseiluak eraman lanak erantzun anitzekarri ditu. Baina kontrakoek lan horiek hasi aitzin erabiltzen zituzten argudio berberak gaur egun ere errepikatzea fede txarra bertzerik ez da, proiektua tratatzen entseatzeko». Eta zergatik dira kontrarioak? «Zaila da erratea, beraietara galdetu beharko litzaieke. Baina gauza segurua da Elkargo bakarraren hautetsi kopurua eta ondorioz, dieta kopurua ere bai, behegizko dela eta ez dela lekurik denentzat izanen».

**HURRENGO URRATSA**

Bozka ongi ateratzen bada, Euskal Herri Elkargoa 2017ko urtarrilaren 1ean sortuko dute. Baina ez da hor bukatuko lana. Baterako kidearen arabera, «2015eko biltzar nagusian Baterak onartu moztioan, Elkargo bakarraren aldeko sozializazioa egitea erabaki zen, baina ongi zehaztuz Elkargo bakarra lehen urrats bat zela Lurralde Kolektibitatearen lortzeko». Izan ere, «Prefetaren proposamena aitzin adostasun zabala lortu zen Kolektibitatearen inguruan, bai herritarren eta bai hautetsien artean ere. Baina frantses gobernuak uko egin zion adostasun zabal horri». Castetek kontatu digunez, «Elkargoarekin alderatuta, Lurralde Kolektibitateak ahalmen gehiago ditu, kudeaketa errezagoa eta demokratikagoa da, Kolektibitateko Asanbladak kideak herritarrek zuzenki hautatzen baitituzte, Elkargokoak ez bezala». Beraz, argi dute: «Elkargoa sortuz gero, Baterak aitzina segituko du».



**AUZAPEZKIN SOLASEAN**

**Battitt LABORDE | SARA**

**«Gure herria eta hizkuntza salbatzeko baitezpadako urratsa da elkargo bakarra lortzea»**



«Eremu hau instituzionalki onartzeak ikaragarriko urratsa ekarriko du». Hala ere adierazi digu Sarako auzapezak. Elkargo bakarraren aldekoa da eta «aukera hau ezin dugula utzi» uste du. Azaldu digunez, «bi urte badira elkarrekin zein lan egiten ahal ditugun ikus-terko elkartzeko hasi ginela. Aldeko eta kontrako artean eztabaida latzak izan dira eta lan gaitza bada egina». Are gehiago, «frantziar estatuan afera hainbertze landu duen bakarretarik garestu aipatu da prefetarekin». Elkargo bakarra Lurralde Kolektibitatearen lortzeko lehen urratsa izan daitekeela eta, aukera hori «arras ongi» iruditzen zaiola erran digu, «baina lehenbiziko elkargoa lortu behar dugu». Beretako, «gure herria, hizkuntza... salbatu nahi baditugu, hori baitezpadako urratsa da».

**Jean-Louis FOURNIER | AZKAINA**

**«Erankude berria konplikatu izanen da, baina ziur nago merezi duela»**



Herri Elkargo bakarra sortzearen aldekoa dela kontatu digu Azkaineko auzapezak: «Gure lurraldea entitate bakarrak ordezkatzeko ideia gustukoa dut», adierazi digu. Bere ustez, «horrek botere haundiagoa emanen digu parte garen eskualde handi honetan». Fournierrek aitortu digu «seguru» dagoela «instituzio hau konplikatu izanen dela, batez ere, helburuari eta gobernantzari dagokionean», baina aldi berean, «ziur nago merezi duela. Proiektu handi guztiak ez dira egun bakar batean egiten».

**OHARRA:** Erreportaje hau osatzeko Senpereko auzapezengana ere jo dugu bere iritzia biltzeko, baina ez dugu erantzunik jaso.



**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Eredugarri

**E**reduak. Tipo, prototipo, estereotipo, juicio eta prejuizio. Molde eta esamolde. Badirudi, egun ama izateko alde batera utzi behar direla desira, instintua eta nortasuna. Edo horren barruan ez erortzeak, ordaina eskatzen duela. Badirudi, egun ama ona edo txarra izan zaitezkeela ez bazara moldeen barnean kabitzen. Alde batera edo bestera, ereduak ditugula zain. A motako ama edo B motakoa izan behar zarela tribu edo klub baten partaide izateko. Hau, hori eta bestea egitea dela onena eta naturalena. Teoria motaren bati jarraitu behar zaiola: gure animaliatasunari erreferentzia egiten dionari edo tinko mantentzea eskatzen duen horri, edo dena delakoari. Ereduak jarraitu behar ditugula. Urtuz, ahaztuz, moldatuz, erantziz eta moztortuz.

«Badirudi, egun ama ona edo txarra izan zaitezkeela ez bazara moldeen barnean kabitzen. Alde batera edo bestera, ereduak ditugula zain»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Lapurrik ez!

**B**aratzetik tomateak faltatu zaizkit eta mural dotorea margotu dut: *Lapurrik ez!*. Bizilagun bat etorri zait bere garaian utzitako musika CDeekin, bertze batek lotsatuta erran dit zintzilika-riotik nahi gabe hartu zidala pijama eta azkena, lau letxugetatik bi janak dituela baina bertze biekien eta 5 euroekin agertu da etxean. Burlatan ere gisakoa gertatu omen da, ~~Tortura~~ zioen pintadaren batekin.

## Nabarmentzekoak



**Joanes ILLARREGI**  
Eskolartekoan txapeladun

Iaz bezala, Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketan nagusi izan da leitzarra. Anaia bigarren izan zen eta biak izanzen dira Nafarroako ordezkari Euskal Herrikoan.



**Oier ARIZNABARRETA**  
Hirugarrenez garaile Beran

Durangoko korrikalariak hirugarren aldiz segidan irabazi du Berako Mendi Maratoi Erdia. Ez zuen duela bi urte egindako errekorra hobetzerik izan, baina hasi eta bukatu, nagusi izan zen.



**Inaxio PERURENA**  
308 kilokoa ere bizkarrera

305 kiloko harriak sortu zizkion zalantzak uxatu eta altxaldi dotore batekin 308koa bizkarreratu zuen harrija-sotzaile leitzarrek apirilaren 23an Leitzaan Amazabal pilotalekuan.

Atzera begira → 2006-V-04 / TTIPI-TTAPA 421 zk.



### Mendi abesbatzaren 10. urteurrenean Jon Irtzoki zuzendaria

Duela hamar urte, hamargarren urteurreneko ospakizunetan murgildua zebilen Doneztebeko Mendi abesbatza. Ekainaren 3an, garai bateko eta orduko korrikideak bildu zituzten, bertze hainbat emanaldiren artean. Jon Irtzoki, zuzendariak aipatu zigunez, «eginkizun nagusia eta zailena korua irautea izaten da. Aldaketa eta goitibeheiti handiak izaten dira. Ez da erraza hain herri tikietan horrelako abesbatzak mantentzea. Inguru honetako abesbatzen arazo nagusia dela uste dut. Ez bakarrik kopuru aldetik, emakume eta baxu aunitz izan, baina tenoreak falta badituzu, abesbatza kolokan gelditzen da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua



MEZINASOIA KULTURA NAFARROA





## Kolaborazioak

### Politikarien kontrola

Juainas PAUL ARZAK

**E**z dakit zu baina ni asperturik nago, asperasper egina. Motiboaren zatiren baten batean nirekin bat etorriko zarelakoan... Estatua gobernatzeko berriro hauteskundeak deituko dituzte eta deus gutxi argitzen duen matraka aditu behar izanen dugu, guk ordaindutako paper ergelez josiko gaituzte, kartelak eta soinuak nonahi, eztabaidak... eta erabaki beharko dugu nori eman, ematera joan,... eta ondoren? Beti bezala?

Baliogarria izan daitekeen zerbait ikasi dugu?

Agian pare bat gauza:

1- Politikariek esaten dutenez, politikariek ez daiteke fida. Beraien alderdikoak ez direnek deabru itxura hartzen dute, gezurti, berekoi,... (burura etorriko zaizun edozein astakeria gehitu dezakezu) izaten dira eta, ondorioz, botere eta gobernutik urrun mantentzea hobe. Hori bai, besteaz ari bagara. Alderdi guztietako politikari bakoitza demokraziaren alde, egoera ekonomikoa eta soziala moldatu eta konpontze-

ko gaitasuna eta konpromisoarekin agertuko zaizu. Eta botoa eskatuko.

2- Den denek ura baino gardenagoak izanen direla aldarrikatuko dute. Ezagutu dugun lapurren dantza ezagututa, nola erabaki?

Edozein ideologia, sinismen eta helburu dituzula nirekin bat etorriko zarelakoan: kontrolpean eduki behar ditugu. Zaila da. Dugun tresna bakarra boto tzar hori da, papertxo. Ordea, hortik ateratzen dute, ematen diegu, lana, soldata eta botere itxura lortzeko bidea. Erabili dezagun. Urtero ogasuntzen azterketa sakona, indartsua, pasa eta gaindi dezatela. Jendarteratua izan beharko da gero, honetan pribatutasuna baztertuz. Esparru guztietan egin duten lana neurtzeko urteko txostena ere egin eta argitaratu dezatela, euren boto-emaleek eta ez-emaleek irakur ahal izateko. Zenbat irakurriko dute/dugu? Gutxi batzuk nahiko izanen dira, ordea, zerbait iluna balego salatzen, hedatzen,... behar bada hurrengo botoa zalantzan jartzeko, ematerakoan zehatzago neurtu ahal izateko.

Esneketariaren ipuina badirudi ere, nork daki? Gu-rea betetzen badugu, lor liteke.

«Estatua gobernatzeko berriro hauteskundeak deituko dituzte eta deus gutxi argitzen duen matraka aditu behar izanen dugu, guk ordaindutako paper ergelez josiko gaituzte, kartelak eta soinuak nonahi, eztabaidak... eta erabaki beharko dugu nori eman, ematera joan... eta ondoren? Beti bezala?»

### Otegi elkarriketa

Mikel RODRIGUEZ LANDA

**B**i aste baino gehiago igan da Jordi Evole kazetariak Arnaldo Otegi egindako elkarriketaz geroztik. Ez zuen gauza aunitziki aipatu, kazetariak planteatu zuen moduagatik sentsazioa baita berretsi egin zirela Espainian Otegiaren eta, oro har, ezker abertzalearen eta euskal gatazkaren inguruan dauzkaten topikoak. Evolek Otegi identifikatu zuen gatazka osoaren indarkeriarekin, Espainiako ikuspuntuaren eta hemengo espainolisten ikuspuntuaren arabera azken 50 urteotako biolentzia alde bakarrekoa izan baita, eta, beraz, sufrimendu guziaz sektore bakarrak eragin baitu. Irekierak onartzen dute Espainiak zer edo zer gaizki egin duela, baina hori jatorrizko errudunak eragindako zehar kalte bat baino ez litzateke. Evolek hori erakutsi zuen Otegi berak pertsonalki pairatutako torturaren gaia edo Espainiak egindako hilketak aipatu zizkionean ez zizkiolako kontuan hartu. Handik bi egunera Maddalen Iriartek egin zion elkarriketa Otegi, ETB1 en. Ez zuen Evolerenarekin deus ikustekorik izan, ETAz, biktimez eta gatazkaz gain, bertzelako gaiei buruz zabal mintzatu zirelako. Evoleren elkarriketaren ondoren, hagitz adierazgarria izan zen Espainiako ezkerreko kazetari eta bertzelako iritzi emaleek sare sozialetan eta hedabideetan Otegi eman zioten egurra; ez haiek bakarrik, baita Euskal Herrian haien burua progresista eta heterodoxotzat duten espainolista aunitzek ere. Jorkaldi guziaz ikusi ondoren (elkarriketa+erreakzioak+bigarren elkarriketa), batek konklusio hauek ateratu zituzte: bata, Evolek Otegi egin zion elkarriketa musean karta markatuekin jotzea bezala dela. ETAr buruz mintzatzerakoan, zelaia markatuta dago, eta arbitroa eta diziplina komitea erosiak. Ez da moralaren kontua, saldu nahi diguten bezala; boterearen eta indarraren kontua da. ETA gai erlijioso bat bihurtu du Espainiak, gaizkiaren sinonimo bat, eta horrek arrazionaltasun guziaz baztertzen du. ETA ezin da ulertu, ezin da kontestualizatu, ezta ETak berak egindako zerbait kritikatzeko bada ere. Eta hori egiten duena, zigortuta. Arau horiekin moralki gainetik kokatu nahi izatea tranpa egitea da. Eta, bertze konklusioa da ETB1eko elkarriketak Espainian eta Euskal Herriko erdal munduan izandako oihartzun nuloa. Evoleri loreak bota eta Otegi larrutu ondoren, kazetari eta iritzi emale erdaldu horientzat euskarazko elkarriketa ez da existitu ere egin. Haiek konturatu gabe, euskal gatazkaren bertze alde mingarri bat adierazi dute horrela: Hego Euskal Herrian badela sektore bat kulturalki jantzia, formazio akademikoduna, politikaren egunerokoa jarraitzen duena, iritzi sortzailea izan nahi duena eta, beraz, ardura sozial bat daukana, baina, aldi berean, bertako hiztunei eta hizkuntzan egiten den bizitzari bizkarra emanda bizi dena. Eta jarrera horiekin, niri zaila egiten zait jende hori moralki gainetik dagoela sinistea. Evoleren galdera tranposoetan tranposoena honakoa izan zen: “Merezi izan al du hainbertzeko minak honaino ailegatzeko?”. “ETak eragindako minak” erran nahi zuen, ulertzen baita denok pentsatu behar dugula ETA izan dela arazoaren sorburu eta erantzule bakarra. Zeinek erantzunen lioke “bai”, ezta? Galdera itzuliko diogu: “Merezi izan al du hainbertzeko minak Espainia indarrez elkartuta mantentzeko?”.

## Irakurleak mintzo

## Paronama polita guria!

Deñe ABUIN (Denon Bat Merkataritza Federazioa)

Aze esperantza... krisialdia, on-line salmentak, merkataritzaguneak... Zenbat genituen? 7? 8? Zaila dugu irautea, baina, horrela segituz gero, ez dugu luze iraunen. Orain, horri gehitu behar dizkiogu, guk dakigula behinik behin, gure inguruan 3 Mercadona (Irunen, Oiartzunen eta Añorgan) eta IKEA bat Iruñean.

Orain arte, janaria, bazarra, drogeria eta arropak ziren, eta, orain, altzariekin, dekorazioarekin eta lorategiko gauzekin osatu behar dugu. Eta horren ingurura, bertze batzuk etorriko dira, eta, 10-15 urteren buruan, batzuk kendu egingen dituzte, baina egiaztatu dena da urtero saltoki tiki asko desagertzen ari garela. Gu ez gaituzte multinazionalak mantentzen bizirik. Gu merkataritza tikki eta ertaina gara; herriak bizirik mantentzen dituztenak; zergak hemen, Nafarroan, ordaintzen dituztenak. Non ordainduko ditubere zergak IKEAk?

Beti kontatzen digute zenbat lanpostu sortu behar dituzten; 250

lanpostu, diotenez. Baina ez dute inoiz erraten zenbat lanpostu finko suntsitzen dituzten. Eta 250 horiek kalitatezko lanpostuak izanen dira? Gure lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteari buruz mintzatzen segituko dugu; hagitx ongi gelditzen da hauteskunde-programetan. Gobernuak merkataritza tikiari lagunduko balio handiari laguntzen dion bezala, merkataritza tikiari ere lanpostu gehiago sortu ahal izanen genituzke.

Lehenago batzuk ziren; orain, bertze batzuk. Hauteskunde-garaietan, denak toki-merkataritza sustatzen agertzen dira; filosofia eta ekonomia- eta gizarte-eredu sostengarri bat babesten dute: herri biziak, dinamikoak, zerbitzuekin, herri-tarren ongizatea lehenesten. Baina, gobernura ailegatu orduko, ALDAKETA DATOR. Aurrekoen politika ekonomiko berekin segitzen dute. Eta behin eta berriaz agindu zituztenak bete beharrean, gehiago saiatzen dira laguntzen multinazionaleri, enplegua sortzeko promesekin, dagoeneko enplegu finkoa duen merkataritza tikiari baino.

Gurea bezalako eskualdeetan, ez dago

garraio publikorik herri-errek eskualde bereko bertze zerbitzu edo saltokiak ezagutu ahal ditzaten; ez omen da errentagarria, baina merkataritzagune handiei bus-geltokia ere jarzaten diete.

Herriak hustu egingen dira merkataritza eta zerbitzuak herrigunetik kanpo eramaten badira; oreka bat lortzen ez bada, desastre bat gertatuko da, eta lo egiteko bakarrik balio duten herrietan bizitzen bukatuko dugu. Horixe ikusten ahal dugu parez pare.

A ze panorama! Bai, hau ez da ALDAKETA, DEZEPZIOA baizik.

Erasorik ez!  
Erantzunik gabe!

Ainara GAZTELU GARDE (Baztango Bilgune Feministaren izenean)

Eguzkiak berotzearekin batera, ailegaten zaizkigu herrietako bestak. Baztanen, lurritakoak dira udako ibilbideari hasmenta ematen diotenak.

Gure herrietako bestak eguneroko bizimoduaren isla dira. Egun, hierarkia anitzak, botere harremanak, diskriminazioak, rol banaketak, eta oro har, hegemonikoak diren gizon eta emakume irudiak indartzen dituzte.

Ikusi bertzerik ez dugu gure herrian gertatzen dena. Etxe gehienetan, emakumeak dira besta egunetan bazkari goxoak prestatu, ontziak garbitu, arropak lixatu eta umeak, xaharrak... zaintzen dituztenak. Plazetan berriz, harri jasotzen, pilotan, kontzertuetan, mutil dantzetan.... Gehienetan eta gehienbat gizonezkoak izaten dira.

Hau guztia gutti baltz, zer erranik ez besta giroan, plazan, ostaluetan, txosnetan edo etxerako bidean, emakumeok babosoengandik jasan behar ditugun begirada lizunak, ipurdi eta

titi ukitzeak, piropoak, pelmadak, intimidazioak... edo eta bortxaketak.

Jakin badakigu, eraso hauek ez direla gertakari isolatuak; egun, oraindik jendarte marxista eta heteropatriarkal batean bizi garen seinala nabarmenak bertzerik ez dira, hortaz, errora, sustraira jotzea beharrezkoa da, eraso hauek generoaren araberako botere harreman batzuen baitan kokatzeko. Aspaldi salatzen ari gara indarkeria sexistak egiturazkoa dela eta bizitzako esparru guztietan jasaten dugula.

Hortaz, Baztango bilgune feministak aurten go udarako, herrietako bestetan erasoen kontrako protokoloa martxan paratu nahi du. Horretarako ezinbertzekoa da herritarrekin elkarlanean aritzea eta erantzukizuna eta ardurak konpartitzea. Horrela, salatu gabeko eta erantzunik gabeko erasorik izan ez dadin...

Karrikak, gauak eta bestak gureak ere badirelako eta janarik nazkatuak gaudelako.

Erasorik ez! Erantzunik gabe!

Besta parekideen alde. Gora borroka feminista!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK**  
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
[www.antzuzelai.com](http://www.antzuzelai.com)  
[info@antzuzelai.com](mailto:info@antzuzelai.com)



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak



**trento**  
clínica dental

Trento, 8 - DONOSTIA | T. 943 316 944  
[info@dentaltrento.es](mailto:info@dentaltrento.es) [www.clinicatrento.com](http://www.clinicatrento.com)



**Prentsatik bildutakoak**



«Denbora aurrera joaki, ikasten joaten zara, eta hobeto egiten dituzu gauzak, eta orain ere horretan ari naiz. Nik hala uste dut behintzat. Beraz, espero dut diskoan nabarituko dela zer-baitetan hobetu dudala, eta diskoa bera ere hobeia dela. Edozein lanetan bezala, egiten duzuna hobetzen joateak du garrantzia, eta hortik bizi ahal izateak».

**PETTI**  
Berako musikaria  
BADOK 2016.04.12



«Bietatik dauka taldeak, lotzen gaituzten kateak askatzeko behar bat, oihu bat, eta gauzak kontatzeko gogoia»

«Hasieran bertsioak jotzen hasi ginen, gure kanta batzuk tartean. Pixkanaka gure kantak bakarrik jotzera pasatu gara eta konturatu gara jendeak berdin gozaten duela. Hori da guretzat ederrena»

**KATEZ taldea**  
Leitzako musikariak  
GAUR8 2016.04.09

**11 galdera labur**

**Nor da Goiatz Iturbide?**

Etxalarko gazte kirolzale eta bes-tazale bat.

**Nolatan piztu zitzaizun surferako afizioa?**

Ttikitatik gustatu izan zait baina duela bi urte, urtero Hossegarren ospatzen den surfeko munduko ligako proba bat ikustera joan nintzen eta orduan pentsatu nuen hori egiten saiatu behar nuela.

**Zein da taula gainean zutik mantentzeko sekretua?**

Kirol guztietan bezala orduak sartzea.

**Zenbat ur trago egin behar dira olatu bat hartzerako?**

Hasieran aunitz eta orain ere baten bat bai!

**Etxalarrek ez du itsasorik...**

Ez du ez... eta aunitzetan Hendaia edo Donostiara joateak pereza ematen du baina beno... behin

tabla kotxean sartzen duzularik...

**Bertze afiziorik baduzu?**

Bai, BMXan ibiltzen naiz eta eskiatzea ere aunitz gustatzen zait.

**Zer ematen dizu bakoitzak?**

BMXak lagunekin ongi pasatzea eta leku berriak ezagutzea batez ere. Surfean aritzearen hoberena naturarekin kontaktuan egiten den kirol bat dela da.

**Bestarako lekurik aproposena?**

Etxalar dudarik gabe.

**Oroitzapen onak ekartzan dizkizun kantu bat?**

Su ta gar taldearen Itxaropena.

**Gorrotatzen duzun animalia bat?**

Sugeak, betitik gorrotatzen ditut.

**Ametz bat...**

Bat? Lagunekin Australiara joatea, tablarekin eta BMXaz gozatzeko.



**Goiatz ITURBIDE → Etxalarko surflaria**

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegará 25 bajo  
31780 bera (navarra) t.948 63 0899  
www.sarobe.net

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta  
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**VENTA PEIO**  
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibañin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac prêt a porter restaurant super tabac cadeaux maroquinerie



# BERA

KULTURA → MAIATZAREN 6 ETA 7AN

## Emusik jaialdiaren baitan kontzertuak izanen dira Beran eta Lesakan

Bertako Musika Eskolakoekin batera, Alemania, Herbehereak, Austria eta Valentziakoek parte hartuko dute

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko eta atzerriko hainbat musika eskolekin batera parte hartuko dute Berako Isidoro Fagoaga Udal

Musika Eskolak eta Lesakako Musika Eskolak EMUSIK 2016 jaialdiaren baitan. XII. aldiz eginen den Europako Musika Eskolen Jaialdia da EMUSIK eta horren barne eginen diren ekintzen artean, bi kontzertu emanen dituzte Beran eta Lesakan.

Maiatzaren 6an, ortziralean, 17:00etatik 20:00etara Toki Onako patioan eginen den doako kontzertuan Berako Musika Eskolakoekin batera, Alemania, Herbehereak, Austria eta Valentziako Musika Es-



ÚTIZITAKO ARGAZKIA

Emusik jaialdian parte hartuko duten Euskal Herriko musika eskoletako ordezkariak.

kolek parte hartuko dute. Aipatzekoa da, Berako Musika Eskolako ikasleekin batera, Berako Abesbatzak eta herriko Bandak ere parte hartuko dutela. Gainerakoan, Alemaniatik 40 musikariko orkestra etorriko da, Austriatik jazz-band talde bat, Herbehereetatik harpa joko duen jazz-taldea eta Valentziatik 28 musikari gazteko taldea. Euria eginez gero, Altxateko frontoian eginen dute emanaldia.

Biharamunean, berriro, larunbatean 11:00etan, talde hauek Lesakako Harriondoan eskainiko dute emanaldia, herriko musika eskolakoekin.

Aunitz dira EMUSIK-en baitan parte hartuko duten musika eskolak. Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko musika eskolekin batera, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Danimarka, Estonia, Finlandia, Frantzia, Espainia, Herrialde Katalanak, Alemania, Hunga-

ria, Italia, Letonia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Austria, Polonia, Eslovakia, Suitza, Suedia eta Herbehereetatik etorritakoak ariko dira.

Bertalalde, maiatzaren 6an, goizez, Berako eta Lesakako Musika Eskolakoek Donostiako Ilunbe Aretoan eginen den kontzertuan parte hartuko dute. ETBk grabatuko du emanaldi hori eta maiatzaren 14an emitituko du, ETB1en, 22:00etan.




**2016 / 2017 IKASTURTEA**

**LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK  
EUSKARAZ**

**TOKI ONA BHI BERA**

**MEKATRONIKA INDUSTRIALA  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA  
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**IZEN EMATEA MAIATZAREN 9tik 13ra**

**Telefonoa: 948 625 000**

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>






[iesbera@educacion.navarra.es](mailto:iesbera@educacion.navarra.es)










ARGAZKIAK: MAIANE SANCHEZ ETA JAVIER YARNOZ

## Maiane Sanchez Peruarena herritarrak irabazi du 'Irakurketa instant batean' lehiaketa

Herri Liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatutako *Irakurketa instant batean* argazki lehiaketako epaimahaiak saridunak jakitera eman zituen apirilaren 22an liburutegian izandako ekitaldi berezi batean. Maiane Sanchez Peruarena, 14 urteko beratarrak, *Edan nazazu* lanari esker (ezkerrean) irabazi du lehen saria (e-book bat), Iruñeko Javier Yarnoz Sanchezek lortu du bigarren saria (liburu sorta bat) *Adaptado a los tiempos* lanarekin (Eskuinean). Lan saridunak ikusgai daude liburutegian maiatzaren 6ra arte.

## FLASH

### Antzerkia maiatzaren 14an

Artedrama eta Huts Teatroa taldeen eskutik *Etxeokak* antzezlan ikusgai izanen da maiatzaren 14an, larunbat arratseko 8etan Kultur Etxean. Berako Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Kultur Batzordearen eta Nafarroako Antzoki Sarearen laguntzaz antolatutako emanaldira sartzeko 6 euro ordaindu behar da.

### Musika eskolaren emanaldiak

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolak entzunaldiak antolatu ditu hilabete osoan. Maiatzaren 13an pop-rock entzunaldia izanen dute, hilaren 17an haize-instrumentuko entzunaldia, 18an gitarra entzunaldia, 20an trikitixa-akordeoi entzunaldia, 24an piano entzunaldia, 25ean perkusio entzunaldia eta 31n biolinarena. Emanaldi guztiak 18:00etan izanen dira Musika Eskolan, lehenbizikoa izan ezik (17:00etan).

### Felix Errandonea Memorialerako boluntario bila

Maiatzaren 29an XXXIX. Felix Errandonea Memoriala egitekoa da, arratsaldeko 5etan hasita. Txirringularitza proba hau gauzatzeko bolondresak behar ditu Gure Txokoak bidegurutzetan laguntzeko edota moto enlaze lanean ibiltzeko. Prest baldin bazaude, bidali ize-na [guretxokoaelkartea@gmail.com](mailto:guretxokoaelkartea@gmail.com) helbidera edo 626 309438 telefono zenbakian (whatsapp edo sms bidez).

GIZARTEA → APIRILAREN 30EAN EGIN DUTE

# Garai bateko azienda feria berreskuratu dute

Erakusketa, bazkaria eta baserriaren egoerari buruz hitzaldia izan zuten

## TTIPI-TTAPA

Garai batean Beran ere azienda feriak egin zituzten, Zigardibereko Dolores Errandoneak utzitako goitiko argazkian ageri denez.

Hain zuzen, San Esteban elizatik eliza alderako malda igotzen ageri da Zigardibereko morroia, behia eramaten. Zenbat agiri eta daturen arabera, 1935 urtean egin ziren azken aldiz feriak. Bada, orain, berreskuratzeko asmoz, herritar batzuk eta udalak antolatuta azienda eta produktuen erakusketa feria egin dute larunbat honetan. Goizean aziendak eta bertze produktuak ikusteko au-



UTZITAKO ARGAZKIA

XX. mende hasieran, behia plazara eramaten Zigardibereko morroia, San Esteban karrikan, Txantre Fondaren ondoan.

kera izan zen kiroldegi-ko zabaldegian eta bazkariaren ondotik, baserriaren egoera eta etorkizunaren inguruan aritu ziren Arizkungo Mi-

kel Altzuart, Nabasturengo Gabriel Errandonea eta Sunbillako Lizun gasnategi-ko Arkaitz Vicente.

## Ba al zenekien

Mugaz Gain Antzerki Jaialdia egingen da datozen asteetan. Maiatzaren 12 eta 13an DBHko ikasleek txanda izanen da eta hilaren 19 eta 20an, Lehen Hezkuntzakoena.



**xirgil**  
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Anterola**  
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

**629 449 602**

# LESAKA

GIZARTEA → MAIATZAREN 2AN BUKATU ZEN FIRMAK EMATEKO EPEA

## Auzo konposta etxolak ez kentzeko sinadurak bildu dituzte

Ekonomikoki eta ekologikoki sistema onena dela uste dute sustatzaileek

**Aitor AROTZENA**

Auzo konpostarako etxolak kentzea erabaki du Udalak. Hori ez gertatzeko sinadura bilketa kanpaina egin du Lesaka Auzo Konpostaren Alde taldeak eta udaletxean eta Bortziritako Hondakin Mankomunitatean aurkeztuko dituzte egunotan.

Herrian 248 familiak egiten omen dute auzo konposta eta 158k etxe konposta, «borondatez eta inori kalterik egin gabe». Taldearen erranean, sistema horrek alde onak bertzerik ez ditu, «ekonomikoak, dagoen sistema merkeena delako baita ekologikoak ere, sortzen den zabor kopurua aunitz jausten delako».

### III. Salvador Yanci Memoriala

Salva Yanci zenaren omenez hirugarren aldiz zikloturista martxa antolatu du Beti Gaztek maiatzaren 8an. Igande goizeko 9etan abiatu eta 112 km.ko ibilbidea osatuko dute txirriindulariek.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### 150 ahots Haur Kantarien Topaketan

Giltzarri Abesbatzaren 20. urteurrenaren baitan Haur Kantarien Topaketa egin zuten apirilaren 16an San Martin elizan. Imanol Elizasu zuzendariaren erranetara, 6 urtetik goitiko Baztan-Bidasoaldeko 97 neska mutikok parte hartu zuten topaketan, baita Errenteriako Zariatxo abesbatzako bertze 50ek ere.

### Avilako abesbatza

Giltzarri Abesbatzaren 20. urteurrenako ekitaldien, Avilako Arenas de San Pedroko Voces de Gredos eta Ainhoako Atsulai abesbatzeekin topaketa eginen dute maiatzaren 7an, 20:30ean komentuko elizan.

### Foruei buruzko hitzaldia

Nafarroako foruei eta 1893ko Gamazadari buruzko hitzaldia eskainiko du Maria del Mar Larraza Nafarroako Unibertsitateko irakasleak hilaren 13an, 19:00etan pleno-aretoan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### Tantirudantza jaialdi arrakastatsua aurten ere

Tantirudantza jaialdiak kasik 200 dantzari ttiki bildu zituen apirilaren 17an. Herriko Tantirumairu dantza taldeko 90 bat neska-mutikoekin batera, Zumaiaiko Txori txiki, Getariako Gure Txeru eta Tolosako Udaberrikoak aritu ziren.



**Pertsonaia**  
Iraia ETXARTE TELLETXEA

### Nafarroako futbol-8 selekzioarekin hirugarren

Hamar urte bertzerik ez baditu ere, Nafarroako 12 urtez beheitiko selekzioarekin Espainiako autonomia arteko txapelketan parte hartu du Iraia Etxartek. Lehenbizikofaseko hiru partidak irabazi zituzten Kanariak Uharteak, Errioxa eta Kantabriaren kontra, baita final laurdenetakoa ere, Valentziaren kontra. Finalerdian, txapeldun izan zen Madrilen kontra berdindu egin zuten, baina penaltietan galdu.

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TfP: 948 625 474

**IRU BIDE**  
Erreteria · Asador  
Bitorrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Penen blusak  
**kattagorria**  
lentzeria mertzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514



GIZARTEA → HERRIKO ETXEAK UDA GARAIRAKO

## Igerilekuetan sorosle eta ostatuan lanean aritzeko deialdia

Alde batetik bi sorosle eta bertzetik bi pertsona kontratatuko dira ostatua eta sarrerak kontrolatzeko

baitira lanean. Garbiketarak, aste tarteetan, Gizarte Zerbitzuetatik hartuko den pertsona batek eginen ditu; asteburuetan, berriz, sorosleek eta ostatu-hartzaileek egin beharko dituzte garbiketarak lanak. Informazio gehiago Etxalarko web orrian argitaratuko da.

### Larraburuan urteko batzar orokorra

Apirilaren 17an egin zuen Larraburua jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorra. Joan den urteko egoera ekonomikoa eta burutako ekintzak aztertu, eta aurtengo egin beharreko ekintaldien plangintza azaldu zuten. Zuzendaritzan ez da aldaketarik izan.


### Iruñe ELIZAGOIEN

Urteetan ez bezala, aurtengoan bereizi egin dira kontratazioak; alde batetik, bi sorosle kontratatuko dira sorosle lanetan aritzeko soilik eta bertzetik, pertsona bat edo bi kontratatuko dira ostatua eta sarreraren kontrola eramateko. Modu honetan, sorosleek egun libreak izanen dituzte txandan arituko



### Ba al zenekien


Etxalarren grabatutako *Herri txiki, infernu handi* ETBko saioa kultur etxean eskainiko dute la maiatzaren 13an, arratsaldeko 7etan.



• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak  
• Ongarriak • Burdin tresnak  
• Insektizidak • Edariak • Haziak

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214  
ETXALAR

**KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA**



NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
E N E K  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
E N E K  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
E N E K

Inskripzio Zenbakia 1435





INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK**

Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Iñaki Perurenari omenaldia

Apirilaren 17an omenaldi xumea egin zitzaion Iñaki Perurenari Aian. Horren harira Peru harri txapelketa burutu zen, Iñaki beraren harriak erabiliaz. Aimar Iri-goien, Inhar Urruzuno, Aimar Galarraga, Mikel Lopetegi eta Josetxo Urrutiarekin batera Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarra ere bertan izan zen.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

### Landagain eskolako ikasleak Isaban

Apirilaren 11ko astean Landagain eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek, Bortzrietako ikastetxe publikoko adineko ikasleekin batera Izaban izan ziren Aste zuzenari gozatzen. Goizero El Ferial aldera igo ziren eskiatzera eta arratsaldean bertze zenbait ekintza egin zituzten Izaban eta Erronkarin.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### 'Batek daki' ETB1eko saioan Etxalartarrak

Apirilaren 22an Milagros Indaburu, Xanti Elizagoien eta Itsaso eta Iruñe Elizagoienek Aitziber Garmendiak aurkezten duen *Batek daki* saiorako grabaketa egin zuten Etxalarren. Teknologia berrien inguruan grabatutako saio hau, okerrik ezean, maiatzaren 12an eskainiko dute 22:15ean ETB1n.



# ARANTZA

KIROLA → MAIATZAREN 13TIK 15ERA

## Mendiaren inguruko astebururako prestaketak aitzineratuak dira

Larunbat honetan, 19:00etan bilera izanen da elkartearen

### Nerea ALTZURI

Heldu den maiatzaren 13, 14 eta 15ean, mendiarekin loturiko hainbat ekitaldi eta jarduera osagarri izanen dira.

### MAIATZAK 13, ORTZIRALEA

• Xumar Altzugarai lesakarrak ekoitziriko *Benan mendia arnas dokumentala* ikusgai izanen da, 21:00etan Baskulan.

### MAIATZAK 14, LARUNBATA

• **Arantzako I. Mendi Lasterketa.** 10:00etan abiatuko da eta 16,7 kilometroko luzera eta 1.200 metroko malda duen ibilbidea izanen du. Illurdi, Ekaitza eta Ibintza mendietako kaxkoetan barna pasako dira lasterkariak.

Lehenbiziko hiru emakumezko nahiz gizonezkoentzat izanen dira sariak. Lehenengosaria txapela eta 120 euro; bigarren saria 80 euro, eta hirugarren saria 50 euro. Xabier Zubieta saria ere izanen da, Ekaitzako tontoretik pasatzen den lehenbiziko lasterkari bortziarrarentzat. Arantzako produktuekin hornituzko saskiak ere zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

Aitzinetik izena eman behar da [www.menditzulia.com](http://www.menditzulia.com) edo [www.kirolprobak.com-en](http://www.kirolprobak.com-en). 200 lasterkari onartuko dira.

• 18:30ean, eskoletako gimnasioan, mendi lasterketen inguruko **solasaldia** izanen da Aritz Egea eta Oihana Kortazar lasterkariekin.

• Arratsaldean **haurren-tzako jolasak** izanen dira frontoian.

• 20:00etan Keu Agirretxe & Fignuh Experience-**ren kontzertua** izanen da Aterpen.

### MAIATZAK 15, IGANDEA

• **Arantzako VIII. Mendi Itzulia** egingen da. 07:00-07:30ean abiatuko den ibilbidea 26 kilometro inguru ditu eta 1.600 metroko malda. Zinez, inguru paregabeekin gozatzeko aukera: Izu, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mendaur (aukeran), Zepuru, Bulatxiki... Egun berean edo aitzinetik ere izena eman daiteke, [www.menditzulia.com](http://www.menditzulia.com) webgunean.

Mendi lasterketa Ekaitza Elkartea eta Udalak antolatuta dute eta Mendi Itzulia, berriz, Ekaitza Elkartea. Babesleak Nafarroako Mendi Federazioa, Martiko, Berria eta Trail dira. Herriko eta inguruko hainbat komertzio, ostatu, jatetxe eta zerbitzuz ere lagundu dute.

Apirilaren 23an, mendiaren asteburuan lan egiteko prest diren boluntario andana bildu ziren Ekaitza Elkarteko bileran. Larunbat honetan, maiatzak 7, bertze bilera bat eginen da 19:00etan. Bakoitzak hartu duen arduraren zehaztapenak ematen dituzte.



ARGAZKIA: IGOR UGALDE

### Auzolanean Ekaitzako tontorrean

Argazkiko kuadrilla honek txukun aski utzi zuen Ekaitzako tontorra apirilaren 16an, Udalak deitutako auzolan deialdiari erantzunez. Ikurrina paratzeko harriak pilatu eta makil berria paratu zuten. Orain, ikurrina paratzea bakarrik falta da.



ARGAZKIA: RAUL IPARRAGIRRE

### Txorien kantzak aditzen

Iaz bezala, Bidazik antolatuta, txorien kantzak ezagutzeko aukera izan zen apirilaren 23an. Mikel Olano Gipuzkoako Aldundiko basozain adituak gidatuta, haur zein helduak erne egon ziren azalpenak aditzen. Aterpen aurkezpen bat egin zuen; bakoitzak zein txorien kanta aditu nahi zuen aukeratu eta ondotik, Bordaxuriko erreka aldera ateraldia egin zuten. Parte-hartzaileak hagitz gustura egon omen ziren.



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

### Aste xurian eskiatzen

Bi urtetik behin egin ohi den bezala, 5. eta 6. mailako neska mutikoak elurretan ibili ziren Izaban joan den apirilaren 10etik 15era. Eguraldi ona izan zuten ia eguneroko. Esperientzia paregabea izan omen da.



KIROLA → MAIATZAREN 14AN

## Xabi Telletxearen omenez BTT jautsiera prest du Biltokik aurten ere

Nafarroako txapelketa izateaz gain, Euskadiko Oponerako puntuagarria izanen da

Eta lehen txanda edo manga 15:00etan hasiko da.

Informazio gehiagorako 608 935282 telefonora deitu edo [iganzikobiltoki@hotmail.com](mailto:iganzikobiltoki@hotmail.com) helbide elektronikora idatzi.

### Frontoia estaltzeko lanak

Udal pilotalekua estaltzeko lanen lehen fasean hasiak dira. Zehazki, ezker paretaren gibeletako aldea estaliko dute, euriaz eta haizeaz babesteko panel batzuk jarritz. Conslau enpresa hasia da lanak egiten, 75.300 euroko aurrekontuarekin. Hilabetea bukatu baino lehen lan hauek bukatzea espero dute. Lehen fase honen ondotik, bigarren fasea geldituko litzateke, hain zuzen ere errebote aldeko eta harmailen aldeko zati bat estaliz.

### TTIPI-TTAPA

Xabi Telletxea zena gogoan, aurten ere BTT edo mendi bizikleta jautsiera antolatu du Iganzikoko Biltoki Elkarteak. Maiatzaren 14an eginen da eta aurtengoa seigarren aldia izanen da Xabi Telletxearen omenez, nahiz eta berez, 2002an egin zen lehen edizioa. Aipatzekoa da Nafarroako Txapelketa izanen dela eta gisa berean, Euskadiko Oponerako ere puntuagarria izanen dela.

Goizean entrenamenduak eginen dira, 09:00etatik 12:30era.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ezker paretaren gibeletako aldea estaltzeko panelak jartzeko lanetan hasiak dira. Maiatz hondarrerako bukatuko dituzte lanak.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Auzoetako seinaleak

Aurten, Udaberriko bestetako merkatuan bilduko den dirua banatu eginen da. Erdia auzoen errotulazioa akautzeko izanen da, herriko eta Berrizaungo panelak egitea falta baita. Bertze auzoetan dotore gelditu dira seinaleak.

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

**24**  
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**Alberto RETEGI**  
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info

**Zalain**

**Lizun**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINAIAK OSTATUA

PINTXOAK  
BOCHAK

TFNOA: 948 630 259 BERA



# BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → ORTZIRALERO, ENOLOGIAN ADITUA DEN JOANA HERNANDORENA SUNBILDARRAREN ESKUTIK

## Sagardo, ardo eta bertako produktuen dastatze ikastaroak ematen ditu Iraulik

Iruritako Jauregiarte ostatuan eta Doneztebeko El Cafén

### TTIPI-TTAPA

Ardo eta sagardoan eta Baztan-Bidasoaldeko produktuen dastaketa ikastaroak eskaintzen hasi da ortziralero Sunbillako Irauli enpresa Iruritako Jauregiarte Ostatuan eta Doneztebeko El Cafén ostatuan. Enologian aditua den Irauliko Joana Hernandorena sunbildarrak zuzendurik, Nafarroako ardoa, euskal sagardo naturala eta Baztan-Bidasoan ekoiztutako jakeak dastatu, hobe eza gutu eta zentzumenekin jolasean aritzeko aukera eskaintzen da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Irauliko enpresako Haizea Destribats eta Joana Hernandorena.

Eskualdean erabat berria den proposamena luzatzen du horrela Nafarroako ardo eta Gipuzkoako sagardo bilduma berezia osatu duen enpresak. Iruritako Jauregiarte ostatu-

an, apirilaren 29an, maiatzaren 13 eta 27an eta ekainaren 17an eskaintzen dituzte ordu eta erdiko iraupena duten saioak, 21:00etan hasita. Orduetegi berean, Doneztebeko El Cafén osta-

tuan maiatzaren 6an eta 20an eta ekainaren 3an, 10ean eta 24an izanen dira saioak.

Helduek 14 euro ordaindu beharko dute ikastaroan parte hartzearen truke (Baztan

Bidasoako kideentzat 12 euro) eta 5 euro haurrentzat. Izan ere, haurrak dituzten familiek ere bertaratzeko aukera izanen dute. Gurasoak dastaketan dauden bitartean, bertako edari, bokadillo eta postrez osatutako otordu txiki bat eskaintzen zaie. Helduei dagokienez, Irauliren Nafarroako Jatorrizko Izendapeneko ardo eta Gipuzkoako sagardo bilduma berezitik 5 ardo eta sagardo dastatuko dituzte, baita Baztan-Bidasoan ekoizturiko produktu ezberdinak ere: odolkia, gazta, txistorra, marmelada, barazkiak, intxaurreak...

Ikastaroak baino 24 ordu lehenago erreserbatzea ezinbertzeko da, 615 730792 telefonon edo [info@irauli.org](mailto:info@irauli.org) helbide elektronikoan.

*irauli*  
Gure lurraldeko sagardo eta ardoa  
Vino y sidra de nuestra tierra



[www.irauli.org](http://www.irauli.org) | [info@irauli.org](mailto:info@irauli.org) | T. 615 730 792

ON-LINE DENDA  
PARTIKULARRENTZAT



Garraioa etxeraino doan Baztan-Bidasoatik,  
Donostia, Donibane Lohitzune eta Sara bitarte.

**DASTAKETA IKASTAROAK  
OSTIRALERO**

(Apirilaren 29tik, maiatza eta ekainan)  
**IRURITA (Jauregiarte) | DONEZTEBE (El Cafe).**

**Joana Hernandorena** enologia teknikariak  
zuzendurik

Erreserbatu behar da:  
**615 730 792 | [info@irauli.org](mailto:info@irauli.org)**

Irauliren Nafarroako Jatorrizko Izendapeneko ardo bilduma eta Euskal Sagardo bilduma berezia.  
Baztan-Bidasoan ekoiztutako produktuak: Odolkia, gazta, txistorra, marmelada, barazkiak, intxaurreak, etab..  
7 razioi txiki.



OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 16AN

## Giro ederra izan zen kanpineko kantu zahar egunean

**Maider PETRIRENA**

Bosgarren kantu zahar eguna ospatu zen apirilaren 16an Arizti-gain kanpinean. Bazkari eder baten ondotik eta kantuan, arratsaldea oharkabean pasazuten. Guztira 70 bat abesti kantatzeko aukera izan zuten 75 bat lagunek, giro ederrean, Angel Mariezkurrenaren, Aitor Ibarrekin (tronpeta eta ahotsa) eta Francisco Santxotenaren (akordeoia eta ahotsa) laguntzarekin. Aurtengogan, gonbidatu berezi baten bisita izan zuten, bereaiekin mahai inguruko kantuetan kantatzen duen Kiko Gartxitorena ere etorri baitzen kantatzera. Ilunabarrean Arizti-gain kanpineko antolatzaileek hainbat lote eder zozketatu zituzten.

Dantza egiteko ere tarteak izan zen, baita afaltzeko pintxoak jatekoa ere. Angel Mariezkurrenaren eskerrak eman zizkien kanpineko arduradunei eta musikariei, eta Jaionek ere Angeli eta bertaratutakoei eskerrak eman zizkien. Aitorrek ere eskerrak eman zizkion Angel Mariezkurrenari. Betiko moduan *Xalbadorren Herriotzean* kantatu zuten, egun ederrari akabaila emateko.

### Berako Mendi Maratoi Erdian

Apirilaren 17an Berako XII Mendi Maratoi



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA  
Erran beharrik ez da, giro ederra izan zutela.

erdia jokatu zen. Jendetza izan zen bai ikusten baita parte hartzen ere. Sunbillatik Joseba Gartzia, Eneko Herrera, Iñigo Arrieta, Jon Maritxalar, Ana Gomes eta Azu Carrok parte hartu zuten.



### Ba al zenekien

**Apirilaren 23an Arraiozko Simplyn zozketatu zen Ford KA kotxea Sunbillako Naiara Arretxea Gorosterrazuri suertatu zaiola? Zorionak!**



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Mikel Donearen bisita

Apirilaren 17an Aralarko Mikel Donearen irudia ekarri zuten. Mezan ongi etorria egin zitzaion eta ondoren etorri ezin izan zutenen etxetara eraman zuten. Biharamun goizeko mezan agurtu zuten.



ARGAZKIA: GARI LARRABURU

### Herritarrak Nafarroako judo txapelketan

Apirilaren 23an ere Mendillorri, Nafarroako Kiro-len Jokuetan 9 eta 10 urteko neska-mutikoen Judo txapelketan parte hartu zuten. Horien artean, Unax Larraburu, Eneko Ibarra eta Hodei Gastesik.



ARGAZKIA: ROBERTO ETA SILBIA

### ...eta sunbildarrak Europako Kenpo torneoan Urruñan

Apirilaren 23an Urruñan Kenpo Kaiko Europako Tornea jokatu zen eta bertan 200 parte-hartzaile izan ziren. Horien artean bost sunbildar zeuden: Xuban Jaurregi, Xabi Armendariz, Alberto Latasa, eta Ander eta Oihan Apeztegia.



# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6AN

## Ahari onenak sarituko dituzte Udaberriko Feria egunean

Eskulangileek ere euren lanak plazaratuko dituzte ortziraLEAN

### Marga ERDOZAIN

Aurreko urtetan egin den bezala, aurten Merkaturako plazan IX. Ahari Lehiaketa burutuko da. Eguna borobiltzeko Malerrekako eskulangileen erakusketa-salmenta eta bertako tratularien abere erakusketa antolatuko da.

Goizeko 11etatik 13:30etara burutuko da ahari lehiaketa. Epaimahaiakoei 6 sari banatuko dituzte: 3 mutur gorrientzat eta bertze hiru mutur beltzendako. Sariak honako hauek izanen dira. Lehendabizikoei 120na euro, bigarrenekoei 70na euro eta hirugarrenekoei 50na euro. Sari banaketa 13:30etan burutuko da. Bitartean eta, goizeko 10etatik 14:00etara, Malerrekako hainbat eskulangileen erakusketa izanen da. Aurtengo ferrian parte hartuko duten artisauak honako hauek izanen dira. Urrozko Bittoriano Arzuaga (artilea); Doneztebeko Jose Luis Olaizola (heraldika); Zubietako Santiago Hualde (kai-kuegile); Doneztebeko Lourdes Goñi (etxeoko goxokiak, erroskillak);

Doneztebeako Maria Irueta (Kanutilloak); Oizko Carlos Mindegia (gaztak); Zubietako talogileak, Joxepa Loiarde eta lan taldea; Zubietako Fausti Juanikorena (jantziak); Zubietako Maria Salanueva (xaboiak); Eratsungo Malu Alvarez (zilarra) eta Zubietako Andrew Smith (argazkiak). Eguraldi euri-tsua eginen balu eskulangileen erakusketa eliza atarira eramanen da.

### Maiatzeko agenda

Dagoeneko Doneztebeako agendak 6 hilabeteko ibilbidea egina du. Ekimen honek fruitu politikak eman ditu eta heldu den udazkenera agurtu baino lehen maiatzerako ere ekitaldi sorta aurkeztu du. Ipuin txokoaren emanaldiak maiatzaren 10, 17, 24 eta 31n burutuko dira. Hilabete honetan azkeneko ipuin ordua ere burutuko da.

Maiatzaren 14an dantzaren eguna eginen da Rebeca eskolak antolatua. Goizean Break Dance master-class burutuko da eta arratsaldean dantza ezberdinen emanaldiak gozatzeko aukera izanen dugu herriko hainbat karraketan: jazz, klasikoa, break, hip hop... Dantzaz gain, Irisarri parkeak antolatutako bizikleta ibilbideak eginen dira.

Maiatzaren 21ean



UTZITAKO ARGAZKIA

### 2015ean jaiotako haurrek badute bere zuhaitza

Argazkian ageri diren txikitxoek 2015eko kinta osatzen dute. Libe, Erika, Enea, Aimar, Arane, Mikel, Enai, Ibai, Joana, Luka, Corina, Irati, Ainhua, Cloe, Ander, Adei, Iñigo, Igor, Saioa, Kaiet eta Javier dira. Auskalo etorkizuna zer izanen diren! Hori bai, dagoeneko garbi dutena da Bordablankan gurasoek zuhaitz bana landatu dutela. Hemendik aitzinera, txikitxoek erronka anitz izanen badute ere, zuhaitzak zaintzea ere erronketako bat izanen dute. Famili argazki eder-rra, pasa den apirilaren 17an Bordablankan bisitutako unea ederra bezain hunkigarria gogorarazteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 2015ean jaiotako haurrek badute bere zuhaitza

Osasuna futbol taldeak udan futbol kanpua eginen du Donezteben eta hori aurkeztera etorri ziren Oier Sanjurjo eta Miguel De las Cuevas jokalaria apirilaren 20an Doneztebeko zineman. Malerrekako 200 bat neska-mutiko, Lacturalle enpresako Maider Irisarri, Jaime Sein Doneztebe futbol taldeko presidentea eta hainbat entrenatzaile eta Xanti Uterga alkatea izan ziren ekitaldian. Normalean Taxoaren egiten bada ere, aurten Nafarroako zortzi herritara ailegatuko da. Zehazki, ekainaren 27tik uztailearen 1era, astelehenetik ortziralera, 09:0etatik 14:00etara, 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako txanda eginen dute herrian. Aurkezpenak, sinadurak eta neska-mutikoen galderei erantzun ondotik, Oier Sanjurjok eta De las Cuevasek Osasunako bufandak eman zizkieten Doneztebe Futbol Taldeko entrenatzaileei.

Bearzana plazan apustuberezia burutuko da 3.000 euro jokoan jarriko duena (hurrengo ale-

an zehaztapenak emanen ditugu); maiatzaren 28an Malerreka Eguna (Iturenen ospatuko da)

eta 29an yoga jardunaldi teoriko praktikoa antolatuko da (Ilai, Angel Gamioak bideratua).



OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 13TIK 15ERA

## Egitarau zabalarekin dator aurten ere Kulturaldia

Talo tailerrarekin hasi eta 'Putinen guardasola' antzezlanarekin akituko da

### TTIPI-TTAPA

Aurten ere egitarau zabalarekin dator Donamaria-Gazteluko Kultur Taldeak, Udalaren laguntzarekin antolatutako Kulturaldia. Maiatzaren 13tik 15erako asteburuan egingen da.

### ORTZIRALA, MAIATZAK 13

• 19:00etan talo tailerra

frontoian. Ondotik, berendua izanen da.

- 22:00etan herrikoendako mus txapelketa ostatuan. Malerreka-ko Eguneko finalerako pasea jokoan izanen dute.

### LARUNBATA, MAIATZAK 14

- 11:00etan areto-futbola frontoian: benjaminak amen kontra eta infantilak aiten kontra.
- 16:00etan txotxongilo ikuskizuna, *Gatz Tiritorto basatia*, Maitena Illaramendiren eskutik.
- 21:30ean afaria Herriko Ostatuan eta *Estralurtar baten burutazioak* monologoa,



UTZITAKO ARGAZKIA

### Herriko Itzulia egin du Ibargoiara mendi taldeak

Donamariako Ibargoiara Mendi Taldeak denboraldiari hasiera eman dio dagoeneko. Martxoaren 19an Aiako Harrira joan ziren eta apirilaren 16an, azken urtetan bezala, Donamariako itzulia egin zuten, 25 kilometroko ibilbidea osatuz. 25 bat lagun animatu ziren herriko mendietan ibiltzera. Hilabete bakoitzeko hirugarren larunbatetan egingo dituzte ibilaldiak eta maiatzean Orhira (Otsagabia) joateko asmoa dute.

Telmo Iruretaren esku-tik.

### IGANDEA, MAIATZAK 15

- 11:00etan egurrez egindako jostailu eta jokuak haur eta gaztetxoendako, frontoian.
- 16:00etan antzerkia Donamariako Jaure-



UTZITAKO ARGAZKIA

Inazio Tolosa eta Ramon Agirre aktoreak.

gian: *Putinen guardasola*, Ramon Agirre eta

Inazio Tolosa aktoreekin.

## 2016 udaberriko kolekzio berria

## 1951tik Casa Cambra lentzeria-etxea

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## ITUREN

GIZARTEA → MAIATZAREN 6AN

# Herriko bestak prestatzen hasteko lehen bilera ortziralean

Herriko Etxeko ganbaran eginen dute

## Arkaitz MINDEGIA

Nahiz eta bestetarako oraindik hilabete batzuk falta, lehenengo bileraren deialdia luzatu dute gauzak antolatzen hasteko. Hilaren 6an, ortzirale ilunabarrean izanen da Herriko etxeko ganbaran

## Egur loteak

Duela bi urte bezala Udalak egur loteak eskatzeko eskaintza luzatu die herritarrei. Orduko baldintza berdinak izanen ditu aurtengo deialdiak: egur loteak etxeraino ekarriko dira, 7 tona inguru edukiko

ditu loteak, gehienez bi lote eskatu ahalko ditu bakoitzak...

Maiatzaren 4a da azken eguna eskaria egiteko, eguerdiko ordubiak baino lehen udaltxean.

## Hitzaldi interesgarria

### Pulunpa eskolan

Apirilaren 27an Pulunpa eskolan *Zergatik gaitzen dugu pazientzia gure seme-alabekin?* izenburua zuen hitzaldia burutu zen, Guraso elkarteak antolaturik. Herrikoaren eskutik izan zen solasaldia zalan-tza aunitz argitu eta lagungarria izan zen. Urtean zehar hitzaldi-solasaldi ezberdinak burutzen ari dira.



ARGAZKIA: PULUNPA ESKOLA

## Pulunpa eskolako 5. eta 6 mailakoak kazetari

Pulunpa eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek, Aitor Arotzena kazetariaren bisita jaso zuten apirilaren 19an eskolan bere lanbideaz ikasteko. Aste hauetan kazetaritzaren munduan murgildu da ikastaldea. Albisteak aztertu eta idatzi egin dituzte eta kazetari aditu lesakarraren esperientziak baliatu dira gaiak gehiago jakiteko. Ikasleek diotenez, hitzaldi polita eta interesgarria izan da, gaiaren berze ikuspegi bat eman baitie. Aitor Arotzena ere kontent gelditu omen da, «ikasleek ikusmin handia agertu dute, eta adi-adi entzun dituzte azalpenak».

## Kanpaldiak

Apirileko azken astean hasi eta ekaina bukatu bitarte turistak etorriko dira herrira. Euskal herriko eskola eta ikastoletako ikasleek beraien kanpaldia Abarun aterpetxean eginen dute. Euskal Herriko probintzietako haurrak etorriko dira euskal kultura, inauterien misterioa eta euskara lantzen, Abarun aterpetxeak

kanpaldirako prestatu dituen ateraldi, taller, jolas, bestaz... goxatuz.

## Btt lasterketan burubelarri Sein

Astebururo hor ibiltzen da Jabier Sein bere bizikleta hartuz, han eta hemen BTT modalitateko karreretan.

Hiru txapelketetan aritza, Rural Kutxako kopan, Euskadiko Openean eta Superprestigio

Vai Internazionallean, Sub 23 kategorian.

Rural Kutxaren Koparen barrenean, maiatzaren 1ean Kaskanten egin duen lasterketaren ondotik, maiatzaren 7an Irunberrin eta maiatzaren 29an Jaurrietan aterako da; Euskadiko Openean, berriz, maiatzaren 21ean Pasaian eta Superprestigio Vai Internazionallean Alikanten maiatzaren 15ean.

## TA MALERREKAN ZE? JARDUNALDIEN BAITAN

# Hainbat ekitaldi gauzatu ditu apirilean Malerrekako Gazte Asanbladak

Erlantz Urtasunek Nafarroako historiari buruzko hintzaldia eman zuen Donezteben

## TTIPI-TTAPA

Malerrekako Gazte Asanbladak antolatutako Ta Malerrekako ze? Jardunaldiaren baitan, frontenis txapelketa mistoaren finalak eta Ander Fuentes *Itturri* eta Ane Labakarekin bertso afaria izan zuen

apirilaren 30ean Donamariko Iratxo ostatuan. Apiril mugitua izan dute gazteek. Apirilaren 10ean Jakoba Errekondorekin Zubietan egindako baratze tailer praktikoaren ondotik, apirilaren 22an Erlantz Urtasun historialarekin Nafarroako historia ezagutzeko *Nafarron liburu galduak* aurkezpen, solasaldia eta liburu erakusketa egin zuten Doneztebeko Herriko ostatuan. Nafarroako azken bi mendeetako historiari buruzko hitzaldi interesgarria eskaini zuen



UTZITAKO ARGAZKIA

Erlantz Urtasun hizlari Donezteben.

Urtasunek.

Maiatza eta ekainerako ere ekitaldi gehiago antolatuko di-

tuztela jakinarazi dute Malerrekako Gazte Asanbladatik, beraz, adi egon!



## MALERREKA

KULTURA → APIRILAREN 10, 17 ETA 24AN

# Mendi Abesbatzak bigarren saria eskuratu du Atarrabian

Paz de Zigandakoekin berdindu zuten lehen postuan

**Marga ERDOZAIN**

Apirilaren 10, 17 eta 24an ospatutako abesbatzen lehiaketan Mendi abesbatzak eta Paz de Ziganda Helduen abesbatzak berdinduta

akitu zuten. Saria erdibana ematerik ez zegoenez, epaimahaikoek Atarrabiko taldeari ematea erabaki zuten. Mendi abesbatzak hainbat hilabetetan prestatutako emanaldia *Kitolisen ipuina* ideian oinarritutakoa da. Emanaldi honetan honako abesti hauek abestu zituzten: *Izar ederra*, *Alma Ilanera*, *Crudel! Perché fi fu-*



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendi Abesbatza, Jon Irazoki zuzendari duela.

*ggi?*, *Osularis hostia*, *Guantanamera*, *Haurrak lotaratzeko soinua*, *Hiru Txito* eta *Kitolis*.

Mendi abesbatzako bakarlariak ahotsez gain, hainbat instrumentu jo zituzten, Erreka dantza taldeko bartz dantzari ere partu hartu zuten eta horrez gain, Ester Fernandez artistak prestatutako egurrezko panpinak lagun izan zi-

tuzten. Bukaeran ere, behar den bezalako bukaera egiteko, Esterrek zuzeneko marrazki ederra egin zuen. Dantza, musika, kolorea... emanaldi bikaina eta gustagarria borobildu zuten. Puntuazioa zehaztean, Mendi abesbatza Paz de Zigandako taldearekin berdinduta gelditu zen. 1.200 euroko saria erdibana

banatzerik ezin zenez, etxeko taldeari egokitu zitzaion lehendabiziko postua. Malerrekakoek bigarren saria etxeratu zuten. Zorionak talde osoari eta taldea zuzentzen duen Jon Irazokiri.

*Nikomes Maitea* emanaldiaz gozatzeko aukera maiatzean izanen dugu (hurrengo alean xehetasunak).

## ZUBIETA

GIZARTEA → METROBASERRIA KANPAINA

# Baserrietarako seinaleak jarri dituzte

60 baino gehiago jarri dituzte

**Fermin ETXEKOLONEA**

Metrobaserria kanpainaren barrenean, baserrietarako seinalizazio kartel horiak jarri dituzte. Kartel horietan, auzo bakoitzeko baserriak non dauden, zein distantziatara ageri da.

60 kartel baino gehiago jarri dituzte. Orain galtzeko aitzakiarik ez da.

**Malerrekako Egunerako prestatzen**

Malerrekako Eguna maiatzaren 28an ospatuko da Iturenen. Zubietari dagozkion lanak Muxikoak taldea, joaldunak, bazkaltzeko pa-



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Baserri bakoitza zenbateko distantzian dagoen zehazten dute kartelek.

ella prestatzea, trikitalariak ere bertan izanen dira bazkalondoko musika jartzen eta dantzari batzuk ere ariko dira Iturenko taldearekin. Arantxa Diez izanen da

Ituren, Sunbilla eta Doneztebeko dantza taldeen koordinatzailea eta artisauek parte hartuko dute. Lekukoaren taula Migel Agirrek osatzen du normalki eta aurten

ere berak eginen du Iturenko armarraria.

**Herriko langilea**

Ander Aragon ariko da herri lanetan sei hilabetez, udalak kontratatua.

# ARKUPEAK

GIZARTEA → APIRILAREN 21EAN DANTXARINEAN

## Euskal kantuen egun borobila ospatu zuten jubilatuek

370 bazkide bildu ziren giro ederrean kantuan, dantzan eta bertsoan

### Fernando ETXEBERRIA

Kanturako afizioa duen herria da gurea eta hori agerian geratu zen apirilaren 21ean. 370 elkarte kide bildu ziren, Dantxarineako Benta Peio Jatetxean Euskal kantuen egunez gozatzeko asmotan. Horietatik 51 autoz joan ziren eta gainontzekoak sei autobusetan. Jende gehien bildu zuen taldea Leitzakoa izan zen, 53 kide. Elizondotik 28, Goizuetatik 23, Igantzik 20, Doneztebetik 18, Arizkun, Irun eta Urdazubitik 17, Beratik 14, Erratzutik 13, Lekunberitik 12, Zugarramurdi, Ziga eta Almandoztik 10 eta bertze taldetxo tiki bat Amaiur, Aniz, Arantzeta, Azpilkueta, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Irurita, Ituren, NARBATE, OITZ, Sunbilla eta Zubietatik.

Eguerdiko ordubatean hasi zen besta, baikoitza bere lekuan jarrita, zutik *Agur jaunak* abestia abestuz. Postreko garaian banatu zituzten kantu liburuxkak eta Jose Angelek akordeoiarekin lagunduta

kantuan hasi ziren. Liburuxkak 85 abestirekin osatu zituzten. *Agur Xiberuak* abestiarekin hasi, Eusebio Zelaietak abestutako *Markesaren alaba* segidan, *Anttoni eta Antton*, *Nere sentimendua* Antton Ibarrekin, *Ixil ixilik dago...* abestu zituzten eta baita *Zorionak zuri* ere, urteak betetzen zituzten bazkideak zoriontzeko. Segidan, Guateke taldekoen txanda izan zen. Taldeko bost kideetako lau jubilatuek dira eta giro bikaina jarri zuten abesti euskaldunen poupurri bat eta *Aitorren hizkuntz zaharra* abestia joz. Arrakasta handia izan zuen kontzertuak, bertaratu zirenek gazte garaira jauzi egin eta dantzan aritzeko aukera izan zutelako: *El vals de las mariposas*, *Corazón contento*, *Las flechas del amor*, *El cumbanchero*, *La chica ye ye...*

### KANTUAK ETA BERTSOAK

Ordu eta erdiz dantzan aritu ondotik, baikoitza bere eserlekura itzuli eta liburuxka eskuetan, kantuan aritu ziren. Barberi txiste kontalariak ere saioa eskaini zuen eta Uitziko Marinoliren irrintziak entzuteko aukera ere izan zen. Arratsaldeari bukaera emateko, Migel Goikoetxea eta Jose Angelek Txirrita eta bertze zen-



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Giro bikaina izan zuten Dantxarinean Arkupeak elkarteko bazkideek

bait bertsoaren bertsoak abestu zituzten.

Giro bikaina sortu zen eta besta errepikatze-

ko gogoz daude dagoeneko.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Mendi irteera Leitza

Leitza eta inguruko mendiak ezagutzeko aukera izan zuten apirilaren 19an Arkupeak Elkarteko mendizaleek. 26 laguneko taldea elkartu zen Leitzako plazan 09:00etan eta Kaskanta xerparen gidaritzapean Gorritaran auzorantz abiatu ziren bertatik. 10:00ak aldera iritsi ziren Basakabira, antena aldera hartu eta ordu erdi inguruko igoera egin ondotik, gosaltzeko tartea hartu zuten. Eguzkiko muinoko kaxkora, 11:00ak aldera iritsi ziren eta eguraldi bikaina lagun, bista zoragarriez gozatzeko aukera izan zuten. Atsedean pixka bat hartu eta antena ingurura joan ziren berriz, handik tren geltoki zaharrera koateko. Eguerdiko ordubata eta erdiak aldera iritsi ziren Leitzako plazara eta 14:00etan Musunzarren elkartu ziren bazkaltzeko. Txanpaina ere ez zen falta izan, antolatzailearen urtebetetze eguna ospatzeko. Dislexia duela dio berak eta apirilaren 25ean 47 urte betetzen omen ditu (zorionak!). Kantu eta dantzarako tartea ere izan zen Tomasen eskutik. Horrela Dantxarineako euskal kantuen egunerako ahotsak berotzeko aukera izan zuten. Hurrengo irteera maiatzaren 17an Gorranderen diran dela ere zehaztu zuten eta ekainaren 18an Gavarnie eta Tourmaletara autobusez joateko aukera ere izanen da.



GIZARTEA → BOST TONA ETA ERDIKO LOTEAK IZANEN DIRA

# Egur loteen eskaria udaletxean egin liteke maiatzaren 17ra arte

Heziketa eta hezkuntzarako diru laguntzak ere eska litezke

Juana MARI SAIZAR

2016 urteko etxeko egur loteen eskaera Udal bulegoetan egin behar maiatzaren 9tik 17ra. Egur loteak bost tona eta erdikoak izango dira eta izena emateko orduan lotea eskuratzeko modua adierazi behar da. Eskuratzeko moduaren arabera prezio desberdina izanen du. Egur lotea etxeraino ekartzea nahi duenak 180 euro ordaindu behar harko ditu; egur lotea atera eta pista ondoan uztea aukeratzen duenak 80 euro eta bakoitzak berea bota eta ekar-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

## Mikel Aingeruaren bisita inoiz baino lehenago izan dugu

Apirilaren 23an jaso dugu herrian Mikel Aingeruaren bisita. Igandean goiz etorri zen eta eguraldi kaxkarra zela eta ongi etorria zuzenean elizan egin zitzaion herriko sarreran egin beharrean. Geroz eta jende gutxiago elkartzen da, eta ohi-turak mantentzea ez da erraza. Hurrengo hitzordua maiatzaren 7an, izanen dute eliztarrek. Santa Kruz ermitara erromeria egingo da bidean gurutze bidea egingo da eta ailegatu eta gero meza ospatuko da. Hurrengo egunean, igandean, Jon, Izaro eta Nereak lehenengo jaunartzea egingo dute.

tzea aukeratuz gero, 45 euro. Loteen zozketa data telefonoz abisatuko zaie lotea eskatu dute-

nei. Ordainketa abuztu-an egingen da eta ondoren loteak banatuko dituzte.

## Ikasleentzako diru-laguntzak

Udalak heziketa eta

hezkuntza gastuak ordaintzeko ikasleei diru laguntza ematea erabaki du. 2015 urtean burututako ikasketetan, egiaztatzen den gastuaren %50ekoa izango da laguntza, gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko. Laguntza hau 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Eskatzaileek Areson erroldatuak egon beharko dute gutxienez urtebeteko antzintasunarekin. Egingako gastua egiaztatuta egin behar da faktura, ordainagiri edo antzekoen bidez eta kirol jarduerari dagokionez, ikastaro ez lehiakorrik hartuko dira kontuan, adibidez, igeriketa ikastaroak. Eskera idatziz egin behar da Udal idazkaritzan, maiatzaren 13a baino lehen.

## ARANO

OSPAKIZUNA → KONTSEJUAN

# Bertso afaria antolatu dute maiatzaren 14an

Aitor Mendiluze eta Agin Laburu ariko dira kantuan

Ainhoa ANSA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, Kontsejuan bertso afaria antolatu dute. Maiatzaren 14an

izango da eta iaz bezalaxe, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu ariko dira kantuan. Izen emateko kontsejura deitu behar da.

Egun berean, Leitza, Areso eta Goizuetako eskolen topaketa egingen dute Goizuetan. Egun pasa egiteko aukera polita!

## Auzo-konposta

Auzo konposta egiteko interesa dutenek udaletxean izena eman eta behar den materiala jasoko dute (kuboa, gida eta giltza).

Bestalde aipatu, Koro Astiz ekaina haisiera arte udal langileari laguntzen ariko dela praktika moduan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## 'Euskaraz gara' dokumentala ikusteko aukera izanen da maiatzaren 20an

Arano, Areso, Goizueta eta Leitza Euskara zerbitzuak, bertako herritarrekin elkarlanean osatu duen dokumentala da. Herritarrek euskarari buruz egindako gogoetak biltzen dira eta Aranoko sei herritarrek parte hartu dute. Lanaren emaitza maiatzaren 20an, 19:00etan ganbaran ikusteko aukera izanen da.

## LEITZA

KIROLA → APIRILAREN 23AN, HOGETA HEMEZORTZIGARREN EDIZIOA BURUTU ZEN

# Hassan Ait Chaou eta Eguzkiñe Zabaletak irabazi dute Leitzako Herri Krosa

Bengoetxea eta Mauleon izan dira nagusi ibilbide motzean

## TTIPI TTAPA

Alde zaharrea baina, aldapan gorajoa eta mendi xendak zeharkatuz... ibili ziren herri krosean parte hartu zuten lasterkariak. Denera 200 parte hartzailetik gora izan ziren, 111 kategoria absolutuan; horietatik 75ek 9.500 metroko bidea osatu zuten eta 36k 4.500 metrokoa.

Hasieratik erritmo bizia hartu zuen Hassan Ait Chaouk eta nagusi izan zen proba guztian. Bera izan zen 9.500 metroko lasterketan txapelduna, 31:57 minutuko denborarekin. Helmugara bosgarren iritsi zen Eneko Aizagirre izan zen lehenbiziko leitzarra.



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

200 parte hartzailetik gora izan ziren eta herritarrek maila bikaina erakutsi zuten.

Emakumeetan herritarra izan zen garaipena eskuratu zuena, Eguzkiñe Zabaleta 45:56 minutuko denborarekin izan zen lehena helmugan.

Ibilbide laburrean beriz, Iban Bengoetxea leitzarra (16:44 minutu) eta Arantza Mauleon (24:08) izan ziren irabazleak. Emakumeetan lehenbi-

ziko leitzarra Ainara De Miguel izan zen.

Ibilbideaz gain, aurtengo probako beste berrikuntzetako bat sariei zegokiena izan zen. Ez

zen sari ekonomikorik izan eta horren ordez, garaikurra eta denboraldiko produktuekin osatutako lotea eskuratu zuten irabazleek. Zozketa bereziak ere egin ziren eta herriko merkatariek, tabernek eta kirolariek emandako opariak banatu zituzten parte-hartzaile guztien artean.

## BERDINTASUNA BULTZATUZ

Kirolean berdintasuna bultzatzeko, Berdintasun Batzordeak ere hainbat ekintza gauzatu ditu. *Kirolean ere berdintasunez* logoa sortu eta dortsaletan jarri dute. Genero ikuspegia ere txertatu da araudian eta lehiaketaren irudian eta lehendabizikoz ez da desberdindu ibilbidea sexuaren arabera. Parte hartzeari dagokionez ere balorazio positiboak egin dute emakume askok parte hartu baitzuten.

ERREKORRA → 32 URTEREKIN

# 308 kiloko marka erraz gainditu du Inaxio Perurenak

## TTIPI-TTAPA

300 kilotik gorako bidean, koxka bat gorago egin zuen Inaxio Perurenak apirilaren 23an. Amazabal pilotalekua

jendez lepo, animo faltarik ez zuen izan. Altxaldi bakarra aski izan zuten, 308 kiloko harriari jasoaldi garbia, zalan-tzarik gabekoa emate-



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Altxaldi bakarrean, 17 segundotan, jaso zuen harria.

ko. Otsailaren 28an lortu zuen 305 kilokoa jasotzea eta bi hilabete eskasean bere marka pertsonala hiru kilo ho-

betzea lortu du. Sasoi-ko dago leitzarra, baina marka ahaleginak utzi eta herriz herriko erakustaldiak eskain-

tzeko sasoi datorrela adierazi du orain. Hurrengo erronka burutan du ordea, «esku batekin zerbait egitea».



KULTURA → INOIZ BAINO ERAGILE GEHIAGOK PARTE HARTU DUTE

# Maiatzaren 9an hasiko da Kultur Aroaren XXXIX.edizioa

Ibilbide berria prestatu dute lasterketa herrigunera hurbilduz

JM BARRIOLA

ALKE, Leitzako kultur taldeak, herriko eragileen laguntzarekin antolatutako hitzaldi eta ekitaldien denboraldia datorren maiatzaren 9an hasi eta ekainaren 18an bukatuko da Sagardo Egunarekin. Aurtengo Kultur Aroari, Mendibil mendi taldeak maiatzaren 9an, 19:00etan, zinema aretoan antolatu duen hitzaldi batekin emanen zaio hasiera. Bertan Antton Arza eta Josu Iztuetak *Biziminez* dokumentala eta hitzaldia eskainiko dituzte. Arturo Elosegi herritarrak, ibaietan aditua da bera, emanen du Kultur Aroko bigarren hitzaldia, *Ura gizartearen ardura maiatzaren 12an* 19:00etan Udaletxeko batzar aretoan LeitzEKO konsumo taldeak antolatuta. azalduko du. Larunbatean, **maiatzaren 14an**, Presoen elkartasun taldeak antolatuta, *Kartzela eta gaixotasunak* hitzaldia eskainiko dute Endika Intxausti medikuak eta Oihana Barrios psikologoak, 11:00etan Ateka-beltzen. **Maiatzaren 16an**, astelehena, *Psikologo bila? Gestalt terapiari buruzko xehetasunak* azalduko ditu Maitte Blanco terapeutak 18:30ean Aurrera Elkartean. **Maiatzaren 17an**, *Bizi testamentua eta he-*



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Auzolanean herri inguruak garbitzen aritu dira gazteak

DBH 4ko 38 ikasle inguru auzolanean ari dira herriko zenbait lan egiten eta trukean ikasbidaia ordaintzeko laguntza emanen die Udalak. Errepide inguruak garbitu dituzte azkenaldian eta moztutako zuhaitzen hondakinak bildu dituzte gazteek. Hauek egituratzaile moduan erabiliko dituzte auzo-konposta egiten dutenak. Kultur ekitaldiak antolatzen direnean azpiegiturak jartzen ere lagunduko dute.

*riotza duina* zer den azalduko du Manuel Eciolazak, 19:00etan Udaletxeko aretoan, Gizarte Zerbitzuek antolatuta. **Maiatzaren 18an**, 19:30etan liburutegian Patziku Perurena idazlearekin *Hilen xarma* liburuaz hitz egiteko aukera izanen da. **Maiatzaren 19an**, Amaia Nagusiak *Emakumeen adoktrinamentua historian* hitzaldia eskainiko du 19:00etan Ateka-beltzen. **Maiatzaren 20an**, ostiralean, Ateka-beltzen film labor lehiaketa antolatuko dute. Hurrengo alean maiatza bukaerara arte Kultur Aroaren baitan antolatutako ekitaldi gehiagoren berri izanen duzue.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Katez Maketa Lehiaketako finalista da

Duela bi urte sortu zuten taldea 19 eta 23 urte arteko sei leitzarrek: Unai Urkiola eta Markel Barriola abeslariak; Mikel Sagastibeltza eta Manex Moreno, gitarrak; Julen Zeballos, baxua, eta Oinatz Mariezkurrena, bateria. Gaztea maketa lehiaketan parte hartu dute eta entzuleen botoei esker, lehenbiziko finalistak dira *Hotz* abestiarekin. Maiatzaren 27an Bilboko Kafe Antzokian izango da finala.



**Pertsonaia**

Joanes ILLARREGI

Nafarroako eskolarteko txapelketa irabazi du bigarren bez

Eskolarteko bertso txapelketari neurria ongi hartua dirudi Joanes Illarregi. Altsasuko Itsasi Euskaltegian apirilaren 15ean jokatu zen txapelketa irabazi baitu, bigarren urte jarraian. Gainera, Xabat Illarregi, anaia bigarren geratu zen. Biak elkarren babesean ariko dira ekainaren 4an Ereñotzun jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan.

Txapelketek ohikoa duten lehia kutsua apaltzeko asmoz, formatu bereziko saioa izan zen Maider Ansa aranoarrak aurkeztu zuena. Lehendabiziko fasean bertaratu ziren ikasle guztiek izan zuten kantatzeko aukera. Gaia jarrita, lau oinak emanda eta hitza emanda kantatzeko aukera izan zuten: hamar minutuan bertsoa pentsatzen zuen edonork izan zuen aukera. Behin ariketa hauek eginda eta epaileek hala erabakita, lau bertsolari sailkatu ziren bigarren fasean: Xabat Illarregi, Joanes Illarregi, Idoia Granizo eta Ekain Alegre. Bi leitzarrek saio polita osatu eta beraiek eskuratu zuten Euskal Herrikoan aritzeko txartela.

# GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6 ETA 7AN

## Txinoko festak astebururako plan bikaina

Xabier Legarreta eta Julio Sotoren bertso saioarekin hasiko dira ostiralean

txapeldunak arkumea eramango du etxera eta azpitxapeldunak txakolina eta bi bogabante.

Larunbatean, maiatzak 7, 09:45ean krosetan izen ematea irekiko da. 10:30ean abiatuko da haurren krosa eta 11:00etan helduen krosa. 12:00etan festei hasiera ofiziala emateko txupinazoa botako da eta ondoren krosetako sari banaketa egingen dute. Dragoia aterako da giroa alaitzera, trikitilarietara batera. 14:30ean herri bazkaria izango da Goiko Frontoian. Bazkaltzera joan nahi dutenek txartelak salgai dituzte Amaia kafetegian.

Arratsaldeko 6etan Papo kubanoarekin zunba eta ondoren Gauri eta Janire trikitilariak arduratuko dira giroa alaitzeaz. Gauerdioko 12etan hasita kontzertuak izango dira Desperdicio eta Oso Batsatis taldeekin.

### TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, maiatzeko lehenbiziko asteburuan zubiz bestaldera dagoen Txino auzoko festak izango dituzte hamahirugarren urtez, Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Guraso Elkarteak, Zubiondok, Umore Onak eta Udalak antolatuta. Maiatzaren 6an, ostiralean Julio Soto eta Xabier Legarreta bertso-lariek emango diete hasiera festei 20:30ean, Zubiondo tabernako bertso saioarekin. Gauean 22:30ean Mus txapelketa jokatu da taberna berean. Bikote



UTZITAKO ARGAZKIA

### Umore Onaren pilota gozo txapelketa giro ederrean

Umore Ona elkarteak antolatutako pilota gozo txapelketa jokatu zen apirilaren 16an jende ugari bildu zuen udal pilotalekuan. Denera bederatzi bikote aritu ziren eta finalean Iñigo Urkizuk eta Martin Etxeberriak 8-5 irabazi zieten Xabi NARBART eta Antton Apezteari. Txapeldunak oilaskoa eta ardo botila bana eraman zuten eta txapeldun ordeek txuleta eta ardo botila bana.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Goizukoop izanen da gasolindegia kudeatuko duen kooperatiba

Herrian gasolindegia eratzeko bigarren batzar irekia egin zen apirilaren 23an eta 70 bat lagun agertu ziren. Goizukoop izanen du izena kooperatibak. Batzar eratzalea maiatzaren 28an egingen dute eta zuzendaritza batzordea osatzeko zazpi lagun ere orduan aukeratuko dituzte.

### MAIATZAREN 14AN

## Leitzaldeko eskolen arteko XVII. topaketak Goizuetan aurten

‘Erreka bazterrean’ abestia prestatu dute festarako

### TTIPI-TTAPA

Goizuetako Xalto eskolari dagokio aurten Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako eskolen arteko topaketa antolatzea. Maiatzaren 14an, duela hamazazpi urte hasitako ohiturarekin segiz, lau herrietako ikasle, guraso eta irakasleak elkartu eta

egun osoko festa ospatuko dute, jai giroan elkar ezagutuz.

### EGUN OSOKO FESTA

11:00etan hasiko da festa herriko plazan; ongi etorria egin eta bioingeneritza taldeak osatuko dituzte. Tailerrak eta jolasak prestatu dituzte, 11:30etik 13:00ak aldera arte guraso, haur eta irakasleentzat. Segidan, trikitilarietara kalejira egin eta 13:30ean eskolan bazkaria izanen da.

Bazkarirako txartelak estankotan daude salgai, maiatzaren 7ra arte (paella 5 euroren truke). Bazkalondoan, 15:30 aldera, festarako apropos sortutako *Erreka bazterrean* abestia abestuko dute eta gero jolaserako aukerak ez dira faltako: txiki-entzatat eta gurasoentzat, jolasak prestatu dituzte eta koskorrentzako futbol partidu erraldoia. Indarrak berritzeko berrendua izanen da gero eta topaketari bukaera 18:30 inguruan emanen zaio.



GIZARTEA → APIRILAREN 22AN ETXEZURIA LANDETXEAN

# Mendialdeko 78 establezimenduk Kalitatearen aipamena jaso dute Zigan

Tartean eskualdeko 28 daude eta horietatik Donamariako Benta ostatua eta Narbarteko Lakoizketa landetxea dira berriak



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

## TTIPI-TTAPA

Jarduera Onen Eskuliburuak (JOE) kalitate turistikoko aipamena emateko ekitaldia apirilaren 22an egin zuten Zigako Etxezuria landetxean. Aipamena 2015ean kalitatea kudeatzeko JOE sistemaren alde egin duten 78 establezimenduk jaso dute. Jarduera Onen Eskuliburuak izeneko markak turismo-kalitatearen erreferente izan na-

Ziurtagiriak banatu zituzten Zigako Etxezuria landetxean.

hi du. Diplomen banaketan egon ziren Maitena Ezkutari, Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza zuzendari nagusia, Cederna-Garalurreko Amaia Eki-soain presidente ordea eta Ibon Mimentza de Irala zuzendari-kudeatzailea eta Joseba Otondo Baztango alka-

tea. Aipamena jaso duten 78 establezimenduetatik 16 berriak dira eta bertze 62k berritu egin dute lehendik zutena.

## ESKUALDEKO 28

Bereizgarria jaso duten eskualdeko establezimenduak 27 dira, horietatik bi berriak: Do-

namariako Benta ostatua eta Narbarteko Lakoizketa landetxea. Horietaz gain, Donamariako Benta jatetxea (Donamaria), Zugarramurdiko Lezeak, Zugarramurdiko Sorginen Museoa eta Zugarramurdiko turismo Bulegoa (Zugarramurdi), Urdazubi Lezeak eta Iri-

goienea landa-ostatua (Urdazubi), Zigako Etxezuria landetxea (Ziga), Casa Ostiz denda eta Alustiza lurrin-denda (Doneztebe), Elbeteko ostatua eta Elbetea jatetxea (Elbete), Tresanea apartamentuak (Ituren), Jauregia I eta II landetxeak (Aniz), Santxotena parke-museoa, Gontxea eta Lizardiko Borda I eta II landetxeak (Arizkun), Baztan Museoa, Urruska landetxea eta Ipingi arropadenda (Elizondo), Kattagorri denda eta Atxaspi hotela (Lesaka), Zubietako errota (Zubietako errota) eta Elgorriagako hotela eta bainuetxea (Elgorriaga).

JOE sistemak aukera ematen die turismo-erloko enpresetako eta zerbitzuetako ardura-dunei arian-arian kalitatearen kulturaren murgiltzeko.

## APIRILAREN 24AN BAIGORRIN

# Batasuna aldarrikatu dute Nafarroaren Egunean

Nafarroako Gobernuko presidentea ere bertan izan zen

ez bezala, Nafarroa Garaiko ordezkariak instituzionala ere izan zen Baigorri: Gobernuko presidentea den Uxue Barrios eta hiriburuko alkate Joseba Asiron.

Basaizea Kultur Batasunak argi azaldu zuen egun honen xedea: «Izpegiren bi magaletan dantzatzeko eta kantatzeko duen herria garelako aldarrikatzeko. Euskarak batzen gaituela erakusteko».

Egun osoan ziganteak, dantzariak, txarangak, txalapartariak, bertsolariak eta ha-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Urtero bezala, giro bikaina izan zuten Baigorriko Nafarroaren Egunean.

inbat musika talde izan ziren eremu ezberdinetan.

Basaizeatik azaldu dutenez, «gure herrian separatista deitu gaituzte. Baina gu ez

gira separatistak! Alderantziz. Unionistak gara gu! Gure herria batua nahi dugu! Nafarroa bi zatitan bereixtearen kontra gira».

## TTIPI-TTAPA

Hutsik egin gabe, apirilko azken igandean Nafarroaren Eguna ospatu dute Baigorri. Horretarako egun osoko egitarau zabala prestatu zuen Basaizea Kultur Batasunak, *Separatistatik ez! Nafarroa bat eta bakarra!* goiburupen. Inoiz

# BAZTAN

GIZARTEA → APirilAREN 23KO MANIFESTAZIOA

## Mila lagun baino gehiagok eskatu dute herriak erabaki dezala Aroztegiko proiektuan

Herri galdeketa eskatzeko 700 sinadura baino gehiago bilduak dituzte gaurero

### TTIPI-TTAPA

228 etxebizitza, hotela eta golf zelaia egiteko Aroztegiko proiektuak «zuzen-zuzenean Lekarozko herriari eragin arren, bailara osoari ere eraginen dio, eta, horregatik, Baztanen herri galdeketa egiteko» eskatzen du Aroztegia... eta gero zer? plataformak. Apirilaren 23an Elizondon antolatutako manifestazioan mila lagunek baino gehiagok bat egin zuten eskaera horrekin.

Manifestazio akabailan Jon Elizetxe plataformako kideak adierazi zuenez, gainera, herri galdeketa eskatzeko 700 sinadura baino gehiago bildu dituzte gaurero. «Ez gara Aroztegiko hirigintza proiektuari buruz bakarrik ari, herritarrok gure etorkizuna erabakitzeo eskubideari buruz baizik», aldarrikatu zuen Miren Meoki Lekarozko alkateak bere aldetik.

Manifestazioan parte hartu zuten aurpegi ezagunen artean, han ziren Joseba Otondo Baztango alkatea, Garbiñe Elizegi alkate ohia, EH Bilduko Adolfo Araiz eta Arantza Izurdiaga, Juan Carlos Longas parlamentari ohi eta NUPeko irakaslea, Itxaro Borda idazlea eta Asisko Urmeneta marrazkilaria.

Aroztegia proiektuaren aurkako eta Geroa Bairen aurkako makina bat mezu irakur zitezkeen karteletan: adibidez, *Geroa Bai=UPN, desberdine aurpegi berdine; Geroa Bai, Baztan ez dago salgai; Baztan saldu nahi dute lau sosen truke* eta *Baztan D'or Mordor*.

Elizondoko plazan, Miren Meokik hartu zuen hitza, eta erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria egin zuen. «Aroztegiko proiektua nazioartekoa dela dioten horiei erran nahi diegu erabakitzeko eskubidea ez dela mugatzen zein naziotako biztanleak izan nahi dugun erabakitzera». Haren esanetan, bizitzako arlo guztietara eraman nahi dute eskubide hori.

Hala, Aroztegiko hirigintza proiektua Leka-



ARGAZKIA. JUAN MARI ONDIKOL

Ehunka lagunek eskatu zuten herritarren hitza errespetatzea.

rozen denez, hasieratik bertako herritarrei galdetzea nahi izan dutela esan zuen Meokik. «Lekaroztarrok argi eta garbi erran dugu Aroztegiko proiektua ez dela gure herriarentzat onuragarria, eta ez dela Lekarozen edota Baztanen nahi dugun garen eredu». Meokiren ustez, proiektuak «aurreri arriskutsua» ezar dezake Nafarroan, UGPS udalerriz gaindiko eragina duen planaren bidez Baztango udalaren erabaki ahalmena saihestu duelako gobernuak. «Nola erran dezake gobernu demokratiko batek ez duela herritarren iritzia jakin nahi, edo galdetzea legez kontrakoa dela?».

### 850 ETXE HUTSIK

Jon Elizetxek gogora ekarri zuen 350 biztanleko herri batean altxatu nahi direla 228 etxe, hain justu, eskualde osoan 850 etxe hutsik direlarik. «Norendako da proiektua onuragarria? Hura nahi ez duten lekaroztarrendako?». Salatu zuenez, hasieran proiektuaren atzean Caixa Galicia zegoen, «9.000 milioi euroko kapital publikoa jaso duena». Era berean,

salatu zuen proiektua sustatu duen Palacio de Aroztegia SLko akziodunak Sicaven jabe direla. «Zertarako eta noiz

arte segitu behar dugu sistema ustel eta sunsitzaila hau elikatzen? Non dago hainbertze iragarri diguten aldaketa?».



UTZITAKO ARGAZKIA

### Baztandarren Biltzarrerako kartela

Aurkeztutako 23 lanen artean, Iruñeko Javier Balda Berastegik aurkeztutako *Karratu bikote* irudiak irabazi du Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiketa. Gaur egun Donostian bizi eta lan egiten duen artistak 600 euroko saria jasoko du. Beraz, aurtu uztailaren 17an ospatuko den bestak badauka iragarriko duen irudirik. Bertzalde, aipatu, uztailaren 18tik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituztela antolatzaileekin harremanetan jarri.



GIZARTEA → DATOZEN URTEETAN IKASLE KOPURUA BERMATZEA DA GARRANTZITSUENA

# Heldu den ikasturtean eskola ttikia izanen dute Lekarozen

Aurrekontuaren zati bat Balleko Etxeak ordainduko du eta bertzea Nafarroako Gobernuak egingen du

## TTIPI-TTAPA

Hainbat hamarkadaz itxita egon ondotik, guraso batzuk abiatutako lanari esker, Lekarozko haurrek beren eskola ttikia izanen dute herrian irailetik aitzinera. Juan Kruz Iriarte Udaleko hezkuntza zinegotziak adierazi duenez, aitzineko gobernuak oztopoak jarri zituen arren, Lekarozko hainbat gurasoren esfortzuen gatiatik abiatu da bileren katea. Udaleko ordezkariak Nafarroako Hezkuntza departamenduko arduradunekin bildu zen egoeraren berri emateko. Lekarozko herrian eskola edukitzeko nahia zutela eta, bilera desberdinak egin dituzte ondotik eta momentu honetan, aurrekontuak hitzartzen ari dira. Iriartek argitara eman duenez, «kontuak zehazten ari garen arren, zati bat udalak ordainduko du, baina gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztango BKT eskubaloi taldea Nafarroako ligako txapeldun

Eskubaloian, emakumeen senior mailan, Nafarroako lauko finala jokatu zuen apirilaren 23 eta 24an Baztango BKT taldeak Atarrabian, baita irabazi ere usetekabeen. Lehen partidari, 23-16 irabazi zioten Suministros Monjardin Lizarria taldeari. Final handian, berriz, lehia estua izan zuten eta partida gehiena azpitik joan ondotik, 9 segunduren faltan lortu zuen BKTk garaipenaren gola (Loyola 21 – Baztango BKT 22). Ez da liga xamurra izan baztandarrentzat. Enrique Petirena entrenatzaileak aipatu digunez, hasierako fasean lesio ugari izan dituzte eta partida aunitz jokalariek guttiarekin jokatu behar izan dituzte. Halere, «jokalariek bukaerara bitarte borrokatu dute eta merezitako saria jaso dugu azkenean, zoriontzekoa da». Nafarroako liga irabazi ondotik, orai Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko sektorea jokatu dute Baztango BKTko neskek maiatzaren 13tik 15era Castro Urdialesen (Kantabria). Etxeko Castro Urdiales taldea, AD la Jota (Errioxa) eta Usurbil K.E. (Euskadi) izan dituzte arerio. Lehenbiziko sailkatuak eta jokatzeko diren sei sektoretako bigarren sailkatuen artean bi onenak mailaz igoko dira. Animo bada neskek!

nontzekoa berriz, gobernuak».

## «DATOZEN URTEETARAKO IKASLE KOPURUA BERMATU»

Baldintzei dagokionez, ikasturtea sei ikaslere-

kin abiatuta guttiengora ez dela ailegatzen aipatu du zinegotziak. Hala ere, garrantzitsuena datozen urteetarako ikasle kopurua bermatzea dela aipatu du. Hor-taz, irekieran izanen li-

ratekeen sei ikasletik goiti egotea aurreikus-ten dute datozen urteetarako. Horretarako, gurasoek konpromiso ir-moa erakutsi dutela ere adierazi du Juan Cruz Iriarte zinegotziak.

## FLASH

### Elizondoko bandak Udaberriko kontzertua

Elizondoko Recreo Bandak Udaberriko kontzertua eskainiko du maiatzaren 7an, larunbat arratseko 8etan, Elizondoko plazan eguraldi onarekin edo Casino elkartean, euria egingen balu.

### Nafarroako Goi mailako Musika kontserbatoriko piano ikasleak

Udal Musika Eskolako antolatuta, Nafarroako Goi mailako Musika Kontserbatoriko piano ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 13an, larunbat arratsaldeko 7etan Arizkunenean.

### Museoen Nazioarteko Eguna

Museoen Nazioarteko Egunaren harira, Baztango Etnografia Museora sarrera doakoa izanen da maiatzaren 20tik 22ra.

### Pello Iriarteren 'Baztan etnografia eta paisaia'

Pello Iriarteren *Baztan etnografia eta paisaia* liburuaren aurkezpena egingen dute maiatzaren 20an, ortziralean 19:00etan Baztango Museoa. Ondotik, Etnografia eta Cigaren bildumara bisita gidatua ere antolatu du Udaleko kultura baztordeak.

**MENDI**  
ostatia  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**CARLOS GARAIKOETXEA**  
**ETXENIKE**  
abokatua  
Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**Mármoles**  
**SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN

# BAZTAN

KIROLA → APIRILAREN 24AN ELIZONDON

## Txarutaren Udaberriko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Aimar Olaizolak eman zituen 26. edizioko sariak

### TTIPI-TTAPA

Txarutak antolatuta-ko Udaberriko txapelketako 26. edizioko azken partidak apirilaren 24an jokatu zituzten Elizondoko Baztan udal pilotalekuan. Denera 117 bikote aritu dira txapelketan, gehienak nafarrak (tartean, Baztango 21), baina baita gipuzkoarrak, bizkaitarrak, Errioxakoak eta Iparraldekoak ere. Finalen ondotik, Aimar Olaizola handiak banatu zituen sariak eta hori eskertzeko, Txarutaren izenean berak ere jaso zuen oroigarria.

**Umeak B** kategorian, Paz Zigan-dako Unai Pariente eta Julen Rekaldek 18-7 irabazi zieten Elizondoko Xuban Goñi eta Elbeteko Imanol Goienetxeri.

**Umeak A** kategorian, Elizondoko Ugaitz Apeztegiak eta Amairuko Arkaitz Goienetxek 18-7 irabazi zieten Ul-tzamako Oihan Belarra eta Aimar Iribarren-i.

**Kimuak B** kategorian, Lesakako Oihan Etxeberriak eta Goizuetako Beñat Apeztegiak 18-9 irabazi zieten Azpil-kuetako Julen Arriada

eta Iruritako Arturo Iturralderi.

**Kimuak A** kategorian, Errenteriako Iraitz Goikoetxea eta Ibai Etxeberriak 18-12 irabazi zieten Elizondoko Ibai Ballarena eta Oihan Obregozori.

**Haurrak B** kategorian, oiartzuarren arteko finalean, Mikel Aranburuk eta Gexan Albusuk 18-16 irabazi zieten Amets Arbelaitz eta Eneko Zalakain-i

**Haurrak A** kategorian, Zizurko Josu Igoak eta Elizondoko Asier Ballarenak 18-4 irabazi zieten Tolosako Aitor Altuna eta Jon Lopetegi-ri.

**Kadete B** mailan, Ul-tzamako Joar Lopez eta Ibai Hualdek 18-12 irabazi zieten Azpeitiko Harritz Aranbarri eta Mikel Unanueri.

**Kadete A** mailan, Arraizko Javi Oskozek eta Narbarteko Gaizka Agirrek 18-14 irabazi zieten Lekarozko Oier Ariztegi eta Etxarriko Borja Ganboari.

**Gazte** mailan, azkenik, Igantziko Oihan Canabal eta Iruñeko Pablo Cordonek 18-4 irabazi zieten Donostiako Julen Albusu eta Andoaingo Aitor Alberdiri. Aipatzekoa da, joan den urtean ere, gazte mailan txapelkun izan zela Canabal igantziarra.



ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA

Goitiko argazkian, txapeldunak, txapeldun ordeak eta txapelketan parte hartu duten berte pilotari ttikiak ageri dira, antolatzaile eta laguntzaileekin. Behetian, sariak banatu zituen Aimar Olaizola, Txarutaren izenean Juanjo Atxak emandako oroigarriarekin.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA  
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 13TIK 16RA

## Berroetako Mendekoste bestak egitarau zabalarekin datoz

Egun handian herri kirol desafio ikaragarria izanen dute

### TTIPI-TTAPA

#### ORTZIRALEA 13 BEZPERA

- 20:00 Suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30 Txopo goratzea herriko trikilariekin. Ondotik mutil dantzak.
- 21:30 Baztan zopak eta kantu zaharrak Lami Oihu taldearekin (txartelak sagai 25 euro).
- 00:00 Dantzaldia Tridantantz taldearekin (gan-torri autobus zerbitzua gau osoan)

#### LARUNBATA 14

#### HAUR ETA GAZTEEN EGUNA

- 14:00 Gazteen bazkaria Aizkoan
- 17:30 Nafarroako 4X4 sokatira finalak.
- 19:00 Iruña taldearen dantzaldia. Ondotik, Bertso-triki-poteoa (Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu bertsolariarekin)
- 21:30 Herri afaria.
- 00:00 Dantzaldia Salaberrerekin.

#### IGANDEA 15

#### MENDEKOSTE EGUNA

- 10:00 Erraldoiak eta gaiteroak herrian berrera
- 11:00 Meza nagusia Gaztelu abesbatzarekin.
- 12:00 Luntxa plazan eta pilota partidak.
- 17:00 Zumba topaketa.
- 18:00 desafio ikaragarria: Segalariak (Ju-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere kirol desafio ikusgarria antolatu dute Berroetako plazan.

len Gabilondo EHko txapelduna, Jon Kanflanka Nafarroako txapelduna, Igor Esnaola Gipuzkoako txapelduna; arpanlariak (Andoni Irigoien eta Guillermo Etxenike, Xanti Aizpurua eta Igor Esnaola); aizko-

lariak (Iruñe eta Maika Ariztegi) eta Baztango bi laisterkari.

- Ondotik dantzaldia Hauspolariekin.
- 22:00 Xinger jatea herriko trikilariekin.

#### ASTELEHENA 16 ZIKIRO EGUNA

- 11:00 XLIII. Berroetako bizikleta itzulia.
- 12:00 Mus txapelketa.
- 14:00 Zikiro jatea Salaberrik alaiturik.
- 21:30 Xinger jatea kantu zaharrekin.
- 00:00 Gaixoa ni bestak akitzeko.



ARGAZKIAK: KIKO GARTXITORENA ETA IRATXE ARRETXEAK

### Argazki lehiaketako sariak banatu dituzte Berroetan

Apirilaren 8tik 10era asteburu kultural arrakastatsua ospatu zuten Berroetan. Ekitaldi ugari egin ziren: haurrendako tailerrak, kirolak, ikastaroak, hitzaldiak, lehiaketak, pelikulen emanaldia... Urteroko gisara egin zen argazki lehiaketan, Kiko Gartxitorenaren argazkia izan zen irabazlea (ezkerrean), epaileek hala erabakita. Bigarren saria berriz, Iratxe Arretxeak irabazi zuen (eskuinean). Lehendabiziko saria Elgorriagako bainuetxean bi pertsonendako zirkuitoa izan zen eta bigarrena, Jauregia Esnekien lotea.

### MAIATZAREN 31 ARTE

Elizondoko bestetako kartel lehiaketako abiatu da

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko Herriak bestetako kartel lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketa irekia izanen da eta nahi adina lan aurkezten ahal izanen dira. Aurkezten diren lan guztietan ondoko testua agertu beharko da: *Santioak 2016 Elizondoko bestak, Uztailaren 24tik 28ra*. Maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak.

Kartelaren neurria A3koa izanen da eta euskarri digitaalaren aurkeztu beharko dira, eta horrekin batera, orri batean inprimatua. Euskarri digitalak lelo bat izanen du, eta lelo hori darman gutunazal batean egilearen datuak idatzi beharko dira. Lanak Elizondoko Herriko Etxera bidali beharko dira maiatzaren 31 baino lehen.

*Elizondoko Herriko Etxea, Jaime Urrutia 4, 31700 Elizondo.*

Elizondoko Besta Batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia eta ekainaren 9tik aitzinera jakinaraziko dute zein den aurten go bestak iragarriko dituen kartel irabazlea. Irabazleak saria izanen du, 150 euro eta zikiroako bi txartel eskuratuko ditu. Abuztuaren 4tik aitzinera parte hartzaileek beren lanak berreskuratu ahal izanen dituzte antolatzaileekin harremanetan jarritz.

## URDAZUBI

GIZARTEA → UDALAK ETA DANTXARINEKO ELKARTEAK

# Mugako pasabidea irekitzea eskatu dute bentak ez kaltetzeko

Azaroan Parisen izandako atentatuez geroztik itxia

## TTIPI-TTAPA

Udalak eta Dantxarinek merkatarien elkarteak salatu egin dute Parisen izandako atentatuez geroztik itxia dagoela Ainhoarako bi pasabideetako bat, eta horrek kalteak eragiten dizkiela alde horretako merkatariei eta turismoari.

Joan den azaroan, Parisen izandako atentatuen ondoren, polizia frantsesak Urdazubi eta Ainhoaren arteko mugako zubian dagoen pasabidea itxi zuen segurtasun-arrazoia tarteko. Udalak kexa agertu

zian egun batzuk pasa eta gero Jendarmeriari eta Ainhoako Udalari, itxierak kalte ekartzen zielako ibilgailuen joan-etorri; izan ere, bide nagusia itxi zuten, eta bertatik, autoez gain, kamioiak eta autobusak ere iragaten dira. Ireki egin zuten pasabidea, baina bigarren mailakoa itxi zuten, garai bateko mugako pasabidea, eta, horren ondorioz, benta batzuk, Lapitxuri benta bereziki, ibilgailuen joan-etorrietatik baztertuta gelditu dira. Benta horren aparkalekurako sarbidea ere mugatuta dago. «Kaltea ez daizugarri handia, baina oraino jasaten ari gara», adierazi du Txomin Iribarren, Merkatarien Elkarteako presidentea. Gainera, guttienez bertze bi hilabetez ere se-



UTZITAKO ARGAZKIA

Txomin Iribarren eta Santiago Villares, itxitako mugako pasabidean.

gituko omen dute egora berean.

Hasieran, kontrolak jarri zituzten mugan, eta Udalak ulertu egin zuen hori, atentatuek sortutako alarmagatik. Halere, aspalditik kontrolak hagituz gutxitan egin dira eta «ez da ulertzen bidea etengabe itxia segitzea, bertara hurbiltzen diren bisitari eta turistek baizik ez dielako egiten kalterik, handik iragatea galazten baitie», dio Santiago Villares alkateak.

Udala, Ainhoa eta Sarako alkateekin mintzatu da mugako pasabidea ireki dezaten, bai eta Pirinio Atlantikoetako departamenduko lehendakari Jean-Jacques Lasserrerekin, Jendarmeriarekin, Po-

lizia Nazionalarekin eta Guardia Zibilarekin ere. Halaber, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako lehendakariordea den Manu Ayerdiarekin; Toki Administrazio, Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizaldearekin; eta Gobernuaren Nafarroako ordezkari Carmen Albarekin bildu da.

## EGUNERO 4.000-5.000 IBILGAILU

Pasabide hori ixteak (zementuzko bloke batzuk jarri dira) Dantxarinek alde guztian eragiten du, arazoak sortzen baititu ibilgailuen joan-etorrietan; izan ere, egunero 4.000 eta 5.000 ibilgailu bitarte iragaten dira bertatik (Trafikoa-

ren Zuzendaritza Nagusiak hala adierazita), eta Dantxarinek saltokiek lau milioi bisitari erakartzen dituzte urtean.

Dantxarinean 23 establezimendu daude zabalik urte guztian zehar, mota guztietako produktuak saltzen dituztenak: tabakoa, alkohola, jakiak, moda, gasolindegia, bazarrak, teknologia, ardoak eta likoreak, jatetxeak... Gainera, bertze bi benta eraikitzen ari dira. Saltoki horiek 500 pertsonari ematen diote lana, eta bertze 200 langile ere ari dira lanean benta berriak irekitzen direnean. Gutxi goiti-beheiti, establezimendu horien langileen erdiak Iparraldekoak dira, hurbileko herrietakoak.

**BURKAITZEA**  
JATETXEA - ERRETEGIA

Eguneko menua, Plater konbinatuak, Karta, Bazkariak, Sandwichak...  
Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:  
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdi errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296  
restaurantburkaitzea@gmail.com

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetatik  
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

**ORBELA**  
SENDERSMA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
Zugarramurdi errep. 3.km  
URDAZUBI



OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 8AN

# Herri Urrats 'Jalgi' lelopean ospatuko da

Frantziako lizeo onena izendatu duten Bernat Etxepare ikastetxearen alde

**Franck DOLOSOR**

Aintzira prest da Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen bestaren 33. edizioarentzat igande huntan. *Jalgi* da aurtengo leloa eta irabaziak Baionako Bernat Etxepare ikastegiari emanen dizkiote erai-kin berria eraikitzeko Lapurdiko hiriburuan. Erai-kin berri hortan Seaska federazioaren lehen lanbide heziketa zentroa zabalduko da. 10 milioi euro gostako den 6.000 metra karratuko eraiki- na altxatuko dute Baio-

nan. Akitaniak 7 milioi ordainduko ditu eta gainerakoa euskaltzaleek pagatu beharko dute. 400 ikasle hartu ahal izanen dituzte ikastetxe berrian.

2zio rap taldea, DJ Balpores, Oreak Tx, Zarena Zarelako, Irrien Lagunak eta Esne Beltza taldeek alaituko dituzte aintziraren bazterrak. Azken talde hunek moldatu du aurtengo kantua Jon Garmendiak egin duen testuarekin. Seaskako ikasle ohiek bertsu saioa eskainiko dute Lapurdi gunean 11:00etan: Ortzidoate, Maddi Sarasua, Aitor Servier, Aimar Karrera eta Miren Artetxe, gai emalea Xan Alkhat izanen delarik.

**GARAPENA**

Seaskako ikastolek

etengabeko garapena dute, eta jadanik, 3.500 ikasle baino gehiago biltzen dituzte Ipar Euskal Herri osoko 32 ikastegietan. Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako haurren %10 inguruk Seaskaren ikastoletan ikasten dute. Joan den irailean, hiru ikastola berri zabaldu zituzten Azkarate, Basusarri eta Biriatuan; eta 2017an lizeo profesionala sortzeaz gain, jantegia eta barnetegia bilduko dituen eraikuntza sortuko dute Iparaldeko euskaltzaleek.

**ETXEPARE, HOBERENA**

Bernat Etxepare Baionako lizeoa Frantziako estatuko hobere- na dela baieztatu du Hezkuntza Sailak egin duen sailkapenak. Par- risko hedabideek oihar-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herri Urratseko aurkezpena, Baionan.

tzun zabala eman diote berri huni eta azpimarratu dute iazko ekai- nean ikasle guzietan gain- ditu zutela unibertsita- tera sartzeko azterke- ta. Xole Mariluz ekono- mia irakasleak pozik hartu zuen albistea lan jarraikia eta estua egi- ten baitute ikasle, ira- kasle eta gurasoen ar- tean. Ikasle taldeak tti- kiak izateak emaitza onak lortzen laguntzen duela diote Seaskan.

Dena den, aho batez kri- tikatzen dute sailkape- nak ez duela sekulan ze- hazten Etxepare D ere- duan ari dela eta bertako ikasleek ezin dutela baxoa euskaraz egin. Izan ere, matematika eta historia-geografia izan ezik, bertze ikasgai gu- ziak frantsesez egin be- har dituzte ikastolako ikasleek, hau da Fran- tziako Errepublikako hizkuntza ofizial baka- rrean.

## Udaberria da!

Prestatu udaberria, zatozte gure ikusterat!  
Mintegia, landareak, maskotak, egongelak, ongailuak...  
eta aunitz gehiago!



84, 1945 maiatzaren 8ko etorbidea  
64100 Baiona  
tel: 00 33 5 59 42 24 42



Ikusi gure  
web orriak euskaraz  
ere!

[www.lafitte.net](http://www.lafitte.net)

## SARA

KULTURA → MAIATZAREN 7AN

# Urrats Gauarekin hasiko dira asteburuko ospakizunak

Joana GERENDIAIN

Maiatzaren 7an, Herri Urrats bezperan, Sarako gaztetxeak Urrats gaua antolatu du. Gaztetxe aitzinean South side familia ska, Coldust, Revolta permanent eta Tortuga sound taldeak entzuten ahalko dira. Kontzertuak 21:00etatik goiti hasiko dira, sartzea 4 eurotan. Bertan, ogitartekoak jan eta puntxak edaten ahalko dira.

## Ikastolako besta

Urtero bezala, mendekoste bezperan Ikastolak bere besta antolatu du, aurten maia-

tzaren 15ean. Usaian bezala sagarnotegi forman antolatzen dute bazkaria, haurrentzat jokoak izanen dira arratsaldean. Tokiak erreserbatzeko Olhain ikastolarekin harremanetan sartu behar da.

## Usopop

Heldu den maiatzaren 28an iraganen den Usopop-en 7. ediziorako txartelak salgai dira Weezevent web gunean, 9 eurotan. Edizio honetan ere munduko txoko ezberdinetako taldeak entzun eta deskubritzen ahalko dira leku zoragarri batean.



ARGAZKIA: OLHAIN IKASTOLA

## Ikastolako haurren ikusgarria

Olhain ikastolako haurrek, irakasle eta laguntzaile guzien eta Manex Fusch antzerkilariaren laguntzarekin, ikusgarri polita aurkeztu zuten polikiroldegian apirilaren 2an. Agirretxe sarako baserriar familia baten istorioa oinarritzat harturik, haurrek jakin nahi izan dute nundik heldu den Sarako aberastasuna. Denboran bidaiarazi gaituzte, baserriko bizia, bale ihiztarien abenturak eta kontrabandisten gorabeherak segituz.

## Kantaldia

Maiatzaren 19an, Azkaineko Larrin kanta abesbatza mistoak kantaldi bat emanen du elizan, gaueko 9etan. Sartzea 10 eurotan da eta urririk 15 urte baino guttiago dituztenentzat.

## Kirola

Sarako errubiliariek 4. mailako finalentzat kalifikatu dira. Joate maitxa errexki irabazi dute 25-16 Amouko ekiparen kontra. Etxean, 7-6 galdu dute baina hala ere kalifikazioa lortu du-

te. Finala Bardozen jokatuko dute Sauveterre-ko ekiparen kontra.

Eskubaloian, senior ekipak ongi bukatu du sasoina bi garaipenekin, 23-26 Ossau-ko ekipari eta 24-22 Montautren kontra.



## Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an  
X. URTEURRENA

Denbora pasatu da,  
baino zure hutsa gurekin betirako geratu da,  
bêti gogoan zaitugu eta gure artean  
bizirik mantentzen dizugu,  
Mila esker erakutsitako guztiagatik,  
eta urrunetik bada ere gurekin egoteagatik.

Mila muxu Jaione zugana,  
gure altxor maitatu eta laztana.  
Betirako etxean egongo zarena.

**ZURE ETXEKOAK**



## Mertxe HUICI GOGORTZA


Leitza 1935.02.10 / 2016.04.26

GOIAN BEGO

Zure indarra, maitasuna eta kemena  
gure ikurra izanen dira.  
Ez adiorik ama, gero arte baizik.

## ZURE FAMILIA

Bere seme-alabek eta gainontzeko  
senideek haren arimaren alde otoitz bat  
eskatzten dizuete.



JOSE MANUEL BIDEGAIN  
KOTTÉ

OHARRIZ, 2013-05-07





**Martzutzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425

## EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## SORTZEAK

**Oier Fernandez Maculet**, Lesakakoa, apirilaren 14an.  
**Oihan Irujeta Izquierdo**, Lesakakoa, apirilaren 18an.  
**Unax Etxeberria Irastorza**, Goizuetakoa, apirilaren 19an.  
**Alaia Bergara Cabodevilla**, Arantzakoa, apirilaren 14an.  
**Alaia Erasun Tazón**, Legasakoa, apirilaren 17an.  
**Iraia Zugarramurdi Ducinska**, Sunbillakoa, abenduaren 29an.  
**Izei Irazoki Arroyo**, Sunbillakoa, apirilaren 16an.  
**Aiora Legarra Garcia**, Doneztebekoa, apirilaren 15ean.  
**Eñaut Altzuguren Irazoki**, Berakoa, apirilaren 22an.  
**Oihan Deskarga Ariztoi**, Iturengoa, apirilaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## HERIOTZAK

**Milagros Mitxelena Sein**, Arantzakoa, apirilaren 14an, 83 urte.  
**Jabiertxo Telletxea Iñarga**, Berakoa, apirilaren 14an, 56 urte.  
**Daniel Sanzberro Arretxea**, Etxalarakoa, apirilaren 19an, 87 urte.  
**Juan Jose Maisterrena Legarrea**, Elizondokoa, apirilaren 22an, 91 urte.  
**Maritxu Irizar Irigoien**, Berakoa, apirilaren 21ean, 82 urte.  
**Eusebio Arregi Elorga**, Doneztebekoa, apirilaen 25ean, 87 urte.  
**Ignacio Maria Gallo Trebol**, Sunbillakoa, apirilaren 4an, 57 urte.  
**Juan Pikabea Ducaz**, Arantzakoa, apirilaren 26an, 88 urte.  
**Josetxo Zabaleta Altzuri**, Leitzakoa, apirilaren 25ean, 33 urte.  
**Mertxe Huitzi Gogortza**, Leitzakoa, apirilaren 26an, 81 urte.  
**Jose Mari Garate Urrutia**, Elizondokoa, apirilaren 26an, 79 urte.  
**Felix Garde Garbalena**, Lekarozkoa, apirilaren 26an, 91 urte.  
**Jose Mari Mendiguren Isasa**, Elizondokoa, apirilaren 27an, 80 urte.



### Loli MUTUBERRIA SALDIAS

Arantzan, 2016ko apirilaren 9an  
Bizitzeko gogo eta ilusioz beterik.

Ez zaigu iruditzen  
aldegin duzunik gure ondotik.  
Baina izar bat ari da dizdizka zerutik.  
Ziur gaude aintzina segitzeko  
ez zaigula faltako argirik.  
Beti gure gogo eta pentsamenduan,  
ez zaitugu utziko gure bihotzetik.

ZURE FAMILIA



### Jabiertxo TELLETXEA IÑARGA

Beran, 2016ko apirilaren 14an, 56 urterekin  
Goizeko sorgin haizeak berri samin bat  
ekarri daku: Jabier, gure taldekide  
zintzoa eta alaia gan zaigula.

«Milesker bihotzez zure laguntza,  
aholku eta konpañia atseginagatik.  
Zuk piztutako suaren inguruan erein  
zinuen pozan dantzatzen segituko dugu.  
Akerra goiti, akerra beiti,  
eta bihotzak beti goiti».

SORGIN HAIZEAK ANTZERKI TALDEA



### Jabiertxo TELLETXEA IÑARGA

Beran, 2016ko apirilaren 14an, 56 urterekin

Maite dugun pertsona agurtzea  
gogorra izan da,  
bainan karga hau  
arinago sumatu dugu  
zuek inguruan egon zaretelako.  
Mila esker eman diguzuen  
laguntza eta maitasunagatik.

ETXEKOAK

HERRI KIROLAK → APIRILAREN 23AN LESAKAN

# Beti Gaztek eta Txantreak lortu dituzte lehen txapelak 4x4 sokatiran

Erabakitzeke falta diren lau txapelak maiatzaren 14an Berroetan egingen den jardunaldian banatuko dira

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako lauko sokatira txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen apirilaren 23an Lesakan eta bertan banatu ziren lehen txapelak ere. Gizasemeen 320 kiloko kategorian Beti Gazte A (Markel Suarez, Lander Landiribar, Beñardo Iantzi eta Gerardo Telletxea aritu ziren, Julen Palenzuela eta Agoitz Alzugarai erakusle zituztela) izan zen txapeldun, Beti Gazte B azpitxapeldun (Karmelo Mitxelena, Ander Mitxelena, Xuban Larretxea eta Paskual Taberna, laguntzaile Mikel Apeztegia zutela). Txantreak osatu zuen podiuma, eta Berrioar A laugarren, Berrioar B bosgarren eta Kaskallueta seigarren izan ziren.

Emakumezkoen 255 kilokoan, Txantrea na-

gusitu zen, Kaskallueta, Berrioar eta Bizindar taldeen aitzinetik.

20 urtez beheitiko kategorian, Berrioar nagusitu zitzaion Basaburu eta Araxes-i.

Kadeteetan, Baztango Basaburu izan zen eskualdeko ordezkaria. Zortzi talde ari direnez, bi multzotan banatuak aritzen dira eta bietan baztandarrak nagusitu ziren. A multzoan Basaburu A lehenbizikoa izan zen, Andra Mari bigarren, Araxes hirugarren eta Berrioar A laugarren. B multzoan, Basaburu B nagusitu zen, Iñigo Aritzak eta Beriainek berdindu zuten bigarren postuan eta Berrioar B izan zen laugarren.

## AZKEN JARDUNALDIAK

Maiatzaren 7an, 18:00etan Antsoaingo pilotalekuan, gizonezkoen 300 kiloko eta emakumeen 235 kiloko lehen jardunaldiak eta kadeteen eta 20 urtez azpikoen hirugarren jardunaldiak jokatuko dituzte. Ordu bete lehenago, Euskal Herriko lehen mailako jautsiera kanporaketa Aurtizko Ander Erasun eta Lezaungo, Juanjo Lopezen artean.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Goitik beheiti, gizonezkoen 320 kiloko podiumean Beti Gazteko bi taldeak eta Txantrea; Basaburuako tiralari gazteak erdian eta Txantreako 255 kiloko emakumeak tiran beheiti.

Bukatzeke, maiatzaren 14an, Berroetako plazan 17:30ean, gizonezkoen 300 kiloko eta

emakumezkoen 235 kiloko bigarren jardunaldiak eta lehen bi sailkatuen arteko finalak, ka-

deteen finalerdiak eta finala eta 20 urtez azpikoek laugarren jardunaldia jokatuko dira.



MENDI LASTERKETAK → APIRILAREN 17AN HAMABIGARREN EDIZIOA BURUTU ZEN

# Ariznabarreta eta Sola irabazle Berako Mendi Maratoi Erdian

547 korrikalari abiatu eta 528k lortu zuten helmugara ailegatzea

Hirugarren garaipena segidan lortu dute Durangoko eta Uztarrozeko korrikalariek



UTZITAKO ARGAZIAK

547 korrikalari abiatu ziren Beran, tartean Manttaleko neska-mutil koadrila ederra.

## TTIPI-TTAPA

Oier Ariznabarreta (Durango), 1:40:16-eko denborarekin eta Laura Sola (Uztarroze), 2:01:55-eko denborarekin, irabazle suertatu ziren apirilaren 17an Berako XII. Mendi Maratoi Erdian. Oier Ariznabarretak ez zuen arazorik izan gizonezkoetan irabazteko, Joxe Amunarrizen (Hondarribia) eta Beñat Marmisollerren (Atarratze) aitzinetik, hurrenez hurren, Larun mendia punturik altuena zuen (900 metro) eta 2700 metrotako desnibela zeukan 21 kilometrotako ibilbide gogorean. Durangokoarentzat hirugarren garaipena da, bata bertzearen ondotik.

Irabazleak ezin izan zuten berak 2014n ezarri zuen errekorra hobetu, 1 ordu, 37 minutu eta 30 segundokoa. Ibardineko tarteko helmuga ere, 150 eurotan saritua, Ariznabarretarentzat izan.

Emakumezkoetan, Laura Sola izan zen Berako kiroldegiko helmugara iristen bizkorrena, Maria Zorroazaren (Gernika) eta Aitziber Ibarbiaren (Zizurkil) aurretik. Uztarrozekoak ere hirugarren garaipena segidan lortu du.

547 korrikalarik parte hartu zuten lasterketan, haietatik 528 iritsi dira helmugara. Jende aunitz hurbildu zen lasterketa ikustera eta ber-

tzelako arazorik gabe eta eguraldi onarekin izan zen probaz disfrutatzerara.

## BEZPERAN HERRI KIROLAK

Probaren aurrekari bezala, bezperan Herri Kirolak izan ziren Toki Ona kiroldegi kanpokaldean. Haurrentzako frogaz ezberdinak izan ziren (txingak, korrika, zaku lasterketak e.a.). Xabier Ariztegi etxalarta-

rrak eta Estitxu Almandoz lesakarrak, harri jasozen erakustaldia eskaini zuten eta hiru harri ezberdin altxatu zituzten. Ondoren, herriko bi talde mixtok, froga konbinatua egin zuten, hala nola koxkor biltzea, zaku lasterketa, aizkora, trontza eta lasterka. Azkenik froga herriko bat izan zen ikusle guztiei irekia eta irabazleentzat sari bereziak izan ziren.

## ESKUALDEKOAK

- 5 Joseba Larralde-Bera
- 10 Iñaki Mihura-Baztan
- 11 Michel Guilçou-Senpere
- 16 Angeltxo Aranibar-Bera
- 18 Miguel Solano-Etxalar
- 23 Mikel Altadill-Leitza
- 25 Daniel Iparragirre-Arantza
- 27 Iñaki Telletxea-Elizondo
- 32 Asier Apezetxea-Arantza
- 36 Xabier Maritxalar-Lesaka
- 40 Imanol Lukanbio-Arantza
- 51 Joseba Lasarte-Bera
- 58 Aritz Alunda-Baztan
- 61 M. Angel Iñarrea-Baztan
- 75 Gaizka Otxandorena-Baztan
- 76 Eric Etxegarai-Sara
- 80 Mikel Urtxegi-Igantzi
- 102 Dani Etxeberria-Baztan
- 113 Igor Agesta-Donestebe
- 115 Ina Lasaga-Bera
- 139 Julen Pikabea-Bera
- 145 Ibai Berregi-Zubieta
- 150 Xabier Iturria-Arantza
- 151 Inaxio Agara-Bera
- 158 Eneko Andueza-Leitza
- 173 Unai Elizagoien-Bera
- 174 Xuban Eugi-Baztan
- 177 Juan Luis Irazoki-Bera
- 183 Jexux Elizalde-Baztan
- 189 Luis Mir-Bera
- 193 Jon Maritxalar-Sunbilla
- 195 Xabi Garmendia-Bera
- 206 Mikel Inda-Bera
- 207 Javier Oteiza-Baztan
- 236 Ugaitz Ado-Bera
- 237 Cesar Sarratea-Baztan
- 238 Eneko Herrera-Sunbilla
- 239 Iñigo Arrieta-Sunbilla
- 246 Imanol Moreno-Bera
- 249 Andoni Garbisu-Sara
- 250 J. M<sup>a</sup> Indakoetxea-Lesaka
- 251 Sergio Morate-Bera
- 262 Joseba Garcia-Sunbilla
- 275 Joxe Mari Zamora-Baztan
- 280 Iker Gomez-Leitza
- 284 Unai Otazo-Etxalar
- 297 J. Mixel Goienetxe-Sara
- 315 Txus Unson-Bera
- 344 Tobi Ruiz-Bera
- 351 Santi Yanci-Baztan
- 355 Xanti Lertxundi-Baztan
- 356 Jaime Zalba-Elizondo
- 365 Aitor Huitzi-Leitza
- 390 M. Ramon Olano-Leitza
- 392 Manuel Gouraud-Bera
- 419 Eneko Zabaleta-Leitza
- 420 Miguel Olano-Leitza
- 446 Jon Irazoki-Bera
- 465 Garikoitz Lopez-Goizueta
- 466 Iban Etxarte-Baztan
- 469 Miguel Azkarraga-Baztan
- 479 Jone Zelaia-Bera
- 480 Irene Matxiarena-Bera
- 495 Xabier Maia-Baztan
- 500 Asier Calderon-Bera
- 501 Maite Bengoetxea-Bera
- 502 M<sup>a</sup> Carmen Urtxegi-Bera
- 511 Ana Gomes-Sunbilla
- 514 Mikel Azpiroz-Leitza
- 516 Leire Portu-Lesaka
- 524 Xole Garmendia-Bera
- 525 Aitziber Iturria-Bera

## maiatzak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eu](mailto:info@ttipi.eu) edo 948 63 54 58

<p><b>Antzerkiak</b></p>  <p>DONAMARIA   2016.05.15</p> <p><b>'Putinen guardasola' antzeziana aktore ezagunekin</b></p> <p>«Lehendakariak» Ray eta Nik musikariei Euskal Ereserki Berrira konposatzea eskatu die eta hari hori tiraka ariko dira Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreak.</p>	<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>GOIZUETA   2016.05.14</p> <p><b>Lau herrietako haur, guraso eta eskolen topaketa</b></p> <p>XVII. aldiz eginen dute Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako haur, guraso eta eskolen topaketa. Aurtan Goizuetak hartu du lekukoa eta egun osoko festa antolatu dute.</p>	<p><b>Kontzertuak</b></p>  <p>BERA/LESAKA   2016.05.06/07</p> <p><b>EMUSIKen baitan kontzertua Beran eta Lesakan</b></p> <p>Bera, Alemania, Herbehereak, Austria eta Valentziako musika eskoletako ikasleek kontzertua eskainiko dute EMUSIK-en baitan Beran eta Lesakan.</p>
--	---	---

**Hitzaldia**

ARANTZA

**Oihana Kortazar eta Aritz Egearekin**Maiatzaren 14an  
18:30ean eskolan.

LEITZA

**'Ura gizartearen ardura'**

Maiatzaren 12an Udaletxean 19:00etan.

**'Kartzela eta gaixotasunak'**

Maiatzaren 14an Ate-kabeltzen, 11:00etan.

**'Psikologo bila?'**

Maiatzaren 16an Aurrera Elkartean (19:30).

**'Bizi testamendua eta heriotza duina'**

Maiatzaren 17an Udaletxean, 19:00etan.

**'Hilen xarma' liburuaz**

Maiatzaren 18an Liburutegian, 19:30ean.

**'Emakumeen adoktrina-mentua historian'**

Maiatzaren 19an Ate-kabeltzen, 19:00etan.

**Tailerrak**

DONAMARIA

**Talo tailerra**

Maiatzaren 13an frontoian, 19:00etan.

IRURITA

**Ardo eta sagardoaren eta Baztan-Bidasoko pro-****duktuen dastaketaz****Ekainaren 17ra arte ortziraleroko** Jauregiartan. Izena: 615730792 edo [info@irauli.org](mailto:info@irauli.org).

DONEZTEBE

**Ardo eta sagardoaren eta Baztan-Bidasoko produktuen dastaketaz****Ekainaren 5etik 24ra ortziraleroko** Cafe ostatuan. Izena: 615 730 792 edo [info@irauli.org](mailto:info@irauli.org).**Dokumentalak**

ARANTZA

**'Benan, mendia amas'**

Maiatzaren 13an

dokumentala ikusgai, 21:30ean Baskulan.

GOIZUETA

**'Euskaraz gara'**

Maiatzaren 13an Udaletxeke Ganbaran, 19:00etan.

ARANO

**'Euskaraz gara'**

Maiatzaren 20an 19:00etan, Udaletxeke batzar aretoan.

LEITZA

**'Biziminez' dokumentala eta hitzaldia**

Maiatzaren 12an zinematan, 19:00etan.

**Antzerkiak**

BERA

**'Etxekoak'**

Maiatzaren 14an Kultur Etxean, 20:00etan.

DONAMARIA

**'Putinen guardasola'**

Maiatzaren 15ean 16:00etan Jauregian.

**Kontzertuak**

SARA

**Saiberri taldea**

Maiatzaren 6an euskal kantak elizan (21:30).

**Urrats gaua**

Maiatzaren 7an South

Side Familia Ska, Col-dust, Revolta permanent eta Tortuga sound taldeak gaztetxe aitzinean, 21:00etan.

**Larrun Kanta**

Maiatzaren 19an 21:00etan elizan.

ELIZONDO

**Elizondoko Banda**

Maiatzaren 7an plazan, 20:00etan

**Nafarroako kontserbatorioko piano ikasleak**

Maiatzaren 13an Arizkunenean (19:00).

GOIZUETA

**Txinoko jaien barne**

Maiatzaren 7an Desperdicio eta Oso basatit 00:00etan.

ARANTZA

**Keu Agirretxea eta Fignuh Experience**

Maiatzaren 14an 20:00etan Aterpen.

BERA

**EMUSIK**

Maiatzaren 6an Toki-Onako patioan (17:00).

**Entzunaldia Musika Eskolan**

Maiatzaren 13an pop-rock saioa 17:00etan.

Maiatzaren 17an haize-instrumentuen entzunaldia 18:00etan.

Maiatzaren 18an gitarrara saioa 18:00etan.

Maiatzaren 20an trikitixa eta akordeoi entzunaldia, 18:00etan.

LESAKA

**EMUSIK**

Maiatzaren 7an.

GAZTELU

**Physis vs Pelax**

Maiatzaren 21ean ostatuan, 22:00etan.

**Bertsokak**

GOIZUETA

**Txinoko jaien barne**

Maiatzaren 6an Xabier Legarreta eta Julio Soto Zubiondon (20:30).

## PROPOSAMENA

SENPERE

**Herri Urrats besta maiatzaren 8an**Aurtan ere jendetza bilduko da Senpereko aintziraren inguruan Herri Urrats bestaren karietarat. Gunez gune, egitarau zabala prestatu dute eta horien artean 2zio rap taldea, DJ Balpores, Oreka Tx, Zarena Zarelako, Irriren Lagunak eta Esne Beltza taldea ariko dira. *Jalgi* da aurtengo leloa eta irabaziak Baionako Bernat Etxepare ikastegiari emanen dizkiote eraikin berria eraikitzeko.



## Ikuskizunak

DONAMARIA

**Txotxongilo ikuskizuna**

**Maiatzaren 14an Gatz Titiritorto basatia,**  
16:00etan Jauregian.

**Monologoa**

**Maiatzaren 14an**  
*Estralurtar baten buru-tazioak*, 21:30ean,  
Herriko Ostatuan.

## Azokak

DONEZTEBE

**Udaberriko feria**

**Maiatzaren 6an.**

ITUREN

**Hileko bigarren igandeko azoka**

**Maiatzaren 8an.**

ELIZONDO

**Bertako produktuak**

**Maiatzaren 14an**  
plazan, 10:00-14:00.

## Ospakizunak

ZUBIETA

**Hiruak Bat Eguna**

**Maiatzaren 7an.**

SENPERE

**Herri Urrats**

**Maiatzaren 8an.**

LEITZA

**Jubilatuaren Eguna**

**Maiatzaren 8an.**

**Kultur Aroa**

**Maiatzaren 9tik 28ra.**  
Xehetasunak 25. orrialdean.

DONAMARIA

**Kulturaldia**

**Maiatzaren 13tik 15era.**

GOIZUETA

**Haur, guraso eta eskolen topaketa**


**Maiatzaren 14an.**

DONEZTEBE

**Dantzaren eguna**

**Maiatzaren 14an.** Rebeca eskolak antolatua.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



**B**arruko leihoa haurrentzako poema liburu bat da, lirismo handikoa, Pello Añorgak orain dela urte batzuk zuen ZUNI-ren ildokoa. Poema-txoak barrura begiratzeko eitekoak dira, zeinetan barrura begiratzen den heinean, kanpora ere begiratzen dugun. Poema batek ongi laburbiltzen du begirada hau. Hona: *Barruko leihotik, sartu da ekia, bihotza jaikita, zabal begia*. Gisa guztietako gaiak ukitzen dira, zazpi ataletan banatuta, lauorrei orrialdetan zehar eta naturak protagonismo berezia du. Hala nola: loreak, haziak, zomorroak, zainak, zuhaitzak eta errautsak; baita maitasunak eta nola ez hitzak ere.



**P**ettiren disko berrian erruz eta erraz aurkituko duzue musika ona. Batetik, konposizioek berez dakarten mailagatik, eta bertzetik, Etxeko Uzta taldearen interpretazio bikainagatik: Igor Telletxea (bateria, perkusioa), Iñigo Telletxea (baxua), Joseba Irazoki (Lap steel, banjo eta gitarra elektrikoak) eta Petti bera (gitarra akustikoa, gitarra elektrikoak eta ahotsa). Grabaketan gonbidatu berezien laguntza ere izan du: Txus Aranburu teklatuan, Estitxu Pinatxo koruan, eta Joseba Baleztena, Felix Buff eta Xan Bidegain hirukotea *Sekula ez erortzea* izeneko kantuan. Denen artean, bi aste eskasetan, denboran iraunen duen diskoa ekoitzi dute. Pettik abilezia handiz moldatu ditu abestiak eta irudi zein sinbologiaz beteriko olerki bizigarriak erabiltzen ditu (Pello Lizarralde, Eneko Barberena, Igor Elortza, Beñardo Goietxe, Juan Luis Zabala, Harkaitz Cano eta Pettirenak) misterioaz, maitasunaz eta askatasunaz konposatu duen historia honetako protagonista senti gaitezen.



**E**paitegietan euskararen normalkuntzaren bidean bertze urrats bat da Auzia Euskaraz proiektua. Justizia Administrazioiko hainbat eragile daude honen gibelean, bertzeak bertze, abokatu eta prokuradoreak, epaitegietako langileak, epaile eta magistratuak, Justizia Administrazioaren letratuak, fiskalak eta auzitegi-medikuak. Ekimen honen helburua herritarrek hala eskatzen dutenean, auziak osorik euskaraz izapidetzea da, demanda aurkeztekin bulego judizialtako barne tramitazioa egin eta epaia eman arte. Hala, proiektu honen bukaerako helburua EAEko edozein epaitegitan auzi bat hasieratik amaierara euskaraz izapidetzea da. Hainbat atal ditu Interneteko atari honek eta hor azaltzen dira proiektuaren nondik norakoak, helburuak, testuingurua, harremanetan nola jarri... Hainbat artikulua eta buletin ere bilduak daude webgunean.

SARA

**Ikastolaren besta**  
**Maiatzaren 15ean.**

## Bestak

URDAZUBI

**Salbatore bestak**

**Maiatzaren 4tik 8ra.**

IRURITA

**Salbatore bestak**

**Maiatzaren 4tik 8ra.**

GOIZUETA

**Txino auzoko jaiak**

**Maiatzaren 6 eta 7an.**

BERROETA

**Mendekoste bestak**

**Maiatzaren 13tik 16ra.**

## Lehiaketak

BERA

**Baztan-Bidasoko**

**Bertsopaper lehiaketa**

**Maiatzaren 20ra arte**  
aurkez daitezke lanak.

**Bestetako egitarauaren**  
**azalerako lehiaketa**

**Maiatzaren 31ra arte**  
aurkez daitezke lanak.

ELIZONDO

**Bestetako kartela**

**Maiatzaren 31ra arte**  
aurkez daitezke lanak.

LEITZA

**Film labor lehiaketa**

**Maiatzaren 20an**  
Atekabeltzen.

## Mendi irteerak

ARANTZA

**Lasterketa eta itzulia**

**Maiatzaren 14 eta 15ean.**

BAZTAN

**Mendigoizaleak**

**Maiatzaren 8an** Herri Urratsera. 08:00etan Amaiurtik.  
**Maiatzaren 15ean**  
Arantzako Mendi Itzulia.

SARA

**Kontrabandoari buruz**

**Maiatzaren 18an**  
09:00etan leizeetan.

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ORONoz-MUGAIRI.** Pisu salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m<sup>2</sup>ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. ☎646 774117.

**LESAKA.** Nabaz auzoan baserria eta 11.450 metro koadroko lur eremua salgai. ☎686 970618.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**LESAKA.** Pisu errentan emateko. Oso modu onean. ☎661 262531.

**ELIZONDO.** Braulio Iriarte karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun eta egongela ditu. ☎650 628885.

**MERKATU TTIKIA**  
**948 63 54 58**  
info@ttipi.eus edo erran.eus

---

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**BERA.** Illekueta auzoan, pisua errentan, 3 logela, sukaldea eta egongela, denak balkoiarekin. Garaje ederra etxe azpian. 550€ banko birtartez. ☎646 280396.



**BERA.** Itzea karrikan pisua errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta hiru logela ditu, 85 m<sup>2</sup> inguru. Hirugarren pisua, igogailua dauka eta garajea ere bai. Oso eguzkitsua eta Alzate kalera bistekin, bi balkoi ditu. ☎669 954135 / 948 630354.

**BURLATA.** Pisu errentan emateko. 3 logela, berogailuarekin. Erabat berritua. Prezio onean. ☎690 041308.

**GARAJE/LOKALAK**  
errentan emateko

**LESAKA.** Garaje plaza errentan emateko, herri erdian. ☎627 784362.

**LESAKA.** Albistur karrikan lur azpiko garaje itxia errentan emateko. ☎618 962937.

**ZERBITZUAK**  
klase partikularrak

**Ingeleseko eta txinerako klaseak** ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle tituluak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.



**Klase partikularrak** ematen ditut. DBH eta

Batxilergoa: zientziak (matematika, fisika, kimika, natur zientziak), erdera, ingelera. Maite. ☎680 708259.

**LANA**  
eskaintzak

**On-line lanean** aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

**BAZTANIKASTOLA**tik jangelako zaintzaileen lan poltsa osatzeko deialdia. Eskaerak maiztaren 6ra arte aurkez daitezke Baztango Udaleko Bulegoan (09:00-14:00).

**URDAZUBI.** Montxo ostatu-jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

**BERA.** Zalain jatetxean zerbitzari bat behar da asteburuetan mahaiak

zerbitzatzeko. ☎948-630967 (09:00-16:00).

**ZUGARRAMURDI.** Alizatenea jatetxean zerbitzaria behar da, esperientziarekin eta frantsesa dakiena. Asteburueta abuztuan lan egiteko, eguerdian. ☎948599187.

**LANA**  
eskariak

**ELIZONDO eta INGU-RUAN** mutila lan bila. Ostalaritzan eta adinekoak zaintzen esperientziaduna. Alor horietan interesatua lan egiteko. ☎722 316606.

**ELIZONDO eta INGU-RUAN** adinekoak zaintzen esperientzia duen 46 urteko emakumea, adinekoak zaintzeko lan bila. ☎677 362626.

Garriolari bezala esperientziaduna C + E karnetaduna (kamioia eta trailerra gidatzeko) eta eraikuntzan esperientziaduna lan bila. **Garriolari edo eraikuntzan lan egiteko** norbait behar izanez gero, deitu. ☎608 720859.

16 urteko **neska berratarra** udan zuen seme-alabak zaintzeko prest dago. ☎678 968495.

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**Gorbeiaiko ardi zakurra oparitzeko.** Emea, urte eta erdikoa. ☎661 767027.

**BASERRIA** DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (apirilaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

<b>ZERRIKIA</b>	<b>BEHIKIA</b>	
<b>Zerrikumea</b> (19 kilo): 32 €	<b>Aretze gizenak:</b>	Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
<b>Zerri gizona</b> 0,940 € kiloak.	<b>Idixkoak: €/kg. Kanal</b>	<b>Aretze tikiak</b> (15 egun ingurukoak):
<b>Zerramak:</b> 0,540 € Kg/bizirik.	<b>Extra</b> 4,16	<b>Aretze mestizoak:</b> urruxak 140,00 idixkoak 228,00
	<b>1.koa</b> 3,93	<b>Aretze nabarrak:</b> urruxak 120,00 idixkoak 180,00
	<b>2.koa</b> 3,75	<b>Zaldikoak: €/k</b> Sortuberriak: 3,03/3,13 Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
	<b>Urruxak: €/kg. Kanal</b>	<b>Bildotsak: €/k</b> 6-8 kilokoak: 5,40/6,40 8-10 kilokoak: 4,60/5,00
	<b>Extra</b> 4,24	
	<b>1.koa</b> 3,97	
	<b>2.koa</b> 3,80	



**Zakurkumeak oparitzeko.** Ama Pirinioetako mastina eta atta artzain zakurra. ☎699 012012.



**ANIMALIAK**  
salgai

**Zezen blonda** salgai.  
☎690 388134 / 948 599045.

**Labrador arrazako 6 zakurkume** salgai Arantzan. 3 arta 3 eme, denak kanela kolorekoak. ☎699 723310.



**MOTORRAK**  
salgai

Agria 9900E **traktorea** salgai, 30 zaldikoa. Direkzio hidraulikoa, gurpilak zabalduak, olioia eta filtroak aldatuak. Egoera onean. ☎637 873969.

**Traktorearen abonadorea eta erremolkea** salgai. 8 belar bola ibiltzen dira. Bere paperekin. ☎690 388134 / 948 599045.

Kuhn GMD 44 markako **belarra mozteko makina** salgai. ☎659 230236.



**Belarra mozteko bi platodun makina** salgai. ☎626 660675.

**DENETARIK**  
salgai

**ORONÓZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**SANTESTEBAN TAILERRAK**  
Leitzoko errep. DONETZTEC T. 948 450 282 F. 948 450 857 donztebe@ctivad.renault.es

 MEGANE IV ZEN DCI 110 CV Km. Zero- estreinatua gabea	 LATITUDE PRIVILEGE DCI 150 CV 47.000 km	 KADJAR ZEN DCI 130 CV Km. Zero- estreinatua gabea
--	---	---

**ETA GAINERA:**  
NISSAN NV200 1.5 D 90 CV  
NISSAN PRIMASTAR (9 Plazakoa) 1.9D 100 CV  
MEGANE SPORT TOURER DCI 90 CV  
KANGOO FURGON DCI 75 CV  
2012 urtekoa - 28.000 kms **KILOMETRO 0**etan prezio ezin hobekak!!!

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

**Alkazizko piketeak** salgai 2,5 eurotan bakoitzatza. ☎948 510143.



**Ate bat duen bainuontzia** salgai. Jende heldua zein mugikortasun gutxi duenarentzat hagitza eroso. Altuera 1,05 metro,

luzera 1,50 metro eta zabalera 0,68 metro. Berriberria. ☎609 477277.



**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**GOIZUETA.** Gaztetxearen ondoan giltzak topatu dira. Udaletxean daude. ☎948 514006.

**GANIX**  
Talerra  
☎948 63 06 69  
Kudandeta, 6 BERA (NA)

**Automóviles IMOBA**  
Okasioko ibilgailuen salerosketa  
FORD auto berriak eta Km 0  
CITROEN NEMO 2012  
4.000€ + IVA  
  
VW PASSAT 2012  
DIESELA 140CV - 109.000 KM  
  
FORD C-MAX 2012  
DIESELA 115CV - 83.000 KM  
  
Irun-Iruña errepidea  
N-121-A 63.km BERA  
948 630 750 | 648 231 361  
www.automovilesimoba.com

**TELEFONO GIDA 2016**  
INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK  
Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Leitzaldeia | Malerreka | Urdazuri

Aurten berrikuntza bat zuri eskaintzeko zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean

- 5.700 ale
- Praktiko eta erraza
- Komertzioak, Lantegiak Zerbitzuak, Erakundeak
- Partikularrak...

**Zure enpresa sartu nahi?**  
Milaka pertsonen ikusiko dute zure iragarkia  
**Informa zaitez**  
T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

**ARANTZAKO UDALA**  
**Aldaketa Arau Subsidiarioetako determinazio xehakatueta**  
**Hasierako onepena**

Arantzako Udalak, 2016ko martxoaren 4ko osoko bilkura arruntean, Arantzako Arau Subsidiarioetako determinazio xehakatueta aldaketa hasiera batez onesteko erabakia hartu zuen.

Honako hauek zehazki:

- Lurzoru urbanizaezinen 17.3, 18 eta 19. artikulua.
- Arantzako Hirigintzako araudi orokorraren 21. artikulua.
- Eraikuntzako ordenantzaren 18, 21, 52 eta 54. artikulua.

Abenduaren 20ko 35/2002 Legearen 79.3 eta 78.1a) artikuluetan ezarritako irjarikiz, espediente jendearean egonen da, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitez.

Arantza, 2016.04.26  
Alkatea, Juan Miguel Almandoz Mitxelena

# urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



**Aresoko IRAI ONSALO SAIZARREK** bi urte bete-ko ditu maiatzaren 14an. Zorionak Barrio Txinoko pelotari txikiari! Muxu



**AINHOA DEL POZO RIOPEDRE** beratarrek apirilaren 22an 3 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez bitxito!



**Eratsungo OIER ESKUDERO BERNAL**ek 7 urteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



**Urdazubiko LOREA GOMEZ GOIETXEK** udaberriko zazpi loretto bildu ditu maiatzaren 4an. Aunitz urtez eta muxu mukuratu bat familiaren partetik!



**Zorionak bikote!** eta ongi pasa Urdazubiko bestak. Segi horrela igotzen, mendi gailurrera ailegatu arte. (A. Olaizolaren partetik)



**ETXAHUN OLAETXEAK** 6 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak amatxi, eta Bera eta Lesakako familiaren partetik. Muxu handi bat.



**GARAZI BARANDAIN ARANALDEK**, urtea beteko du maiatzaren 13an. Zorionak preioxia! Hartu txokolatezko muxu bat zure iribarre baten truke!



**AINHIZE ARNEDO MITXELENA** gure nixkatxak 2 urte bete ditu apirilaren 26an. Aunitz urtez etxekoan partetik! Besarkada handi bat!



**AINHIZE eta XUBAN** bi morroxko hauek bina urte bete dituzte apirilaren 6an eta 26an. Aunitz urtez bikote! Beranduaren esperoan gaude! ;)



**Lesakako ZIHARA TABERNA URRAK** 6 urte bete ditu maiatzaren 3an. Zorionak atxa, ama, Laida eta familia guztiaren partetik.



**Etxalarko XABIER LARBURU ELIZALDEK** maiatzaren 10ean 2 urte beteko ditu! Aunitz urtez eta muxu handi bat familia guztiaren partetik potollo!



**ILARGI INDAKOETXEA MENDIZURI** gure etxeko txikiak 2 urte bete ditu apirilaren 30ean. Mila muxu eta zorion Goizueta, Hernani eta Usurbilgo familia guztiaren partetik.

↑  
hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa [erran.eus](http://erran.eus) en

argazki soila 5 EURO  
aldizkarian interneten  
argazki bikoitza 10 EURO

# erran

## Mendialdeko Albistek

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

**e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK**



- Albistek
- Agenda
- Komunitatea
- Xorroxin online
- Eguraldia
- Merkatu Itiikia
- Urtebetetzeak
- Bideoak
- Galeria

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin



DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN



# HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN. Aukeratu non ikasi

AMETS EGIN: MUNDUKO ZER TOKITAN NAHI DUZU HIZKUNTZA BAT IKASI? Zure ametsa egia bihurtzen lagunduko dizugu



USA

IRELAND

GREAT BRITAIN

CANADA

SOUTH AFRICA

MALTA

AUSTRALIA

CHINA

JAPAN

**%30eko DESKONTUA | 16 URTETIK AITZINERA | GUTTIENEZ 2 ASTE**

**acQrn**  
Quality Language Learning

Ingeles, frantses, aleman, binera eta euskara ikastaroak  
Helduentzat, gaztekoentzat eta haurrentzat  
Hizkuntza ikastaroak atzerrian • Itzulpenak

Koskontako bidea, 11 behea LESAKA  
© 948 637 135 www.acornlanguages.com

Eskatu informazioa:  
[info@acornlanguages.com](mailto:info@acornlanguages.com)  
edo etorri bisitan akademiara.  
Prezio bereziak eta  
promozioak galdetu

2016 - URTARRILA

## • BERRIAK •



**Liderrak**  
gure eskualdean  
eta baita azterketa egiterakoan  
CIESek Nafarroa Garaiko  
mendialdean  
hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere



Gure inguruko  
albisteak

### EXTRA!!!

Ttipi-Ttapa<sup>rekin</sup>  
zure iragarkiak eragin  
haundiagoa du



### Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	15.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
MARCA	4.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
EL PAIS	1.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



#### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%49,40
EMAKUMEAK	%50,60

#### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%12,30
25-34 URTE	%14,90
35-44 URTE	%19,70
45-54 URTE	%17,60
55-64 URTE	%17,70
+64 URTE	%21,80

#### IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%3,30
LEHEN IKASKETAK	%15,10
LANBIDE HEZIKETA	%23,40
BATXILERGOA	%26,80
UNIBERTSITATEA	%31,40

Datu iturria: CIES, 2015eko bigarren neurketa



**ttipi txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Kontaktako bidea, 7 LESAKA  
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus



**ZOZ  
KETAK**

Martiko - Lote bat  
Maite Lakar Iraizoz | IRUÑA  
Baztan Abentura Park - Pendulo 2 tiket  
Inigo Ibarra Alonso | ODIETA  
Irrisarri Land - 2 sarrera  
Ana Sarobe Mitxelena | IRUÑA  
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera  
Patxi Urrutia Jauregi | AMAIUR

Buatxabal - Kamiseta bat  
Blanca Martin Ibarra | ELGORRIAGA  
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera  
Kristina Domeño Rayo | ARIZKUN  
Elkar - Liburu bat  
Pilar Artola Azpiroz | LEITZA  
Elkar - Liburu bat

Arantxa Soubelet Bengoetxea | URDAZUBI

**660.**  
aleko  
irabazleak

**2 sarrera**

2 SARRERA  
**LESAKAKO PIZTINA**  
www.lesakakoudalkiroldegia.com

**2 tiket**

TIROLINA  
**BKZ ABENTURA**  
www.navarraabentura.com

**TXOKOLATE LOTE BAT**  
**ARKUPE GOZOTEGIA**  
www.arkupegozotegia.com

GONBIDAPENAK  
**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
www.eurekamuseoa.es

**2 sarrera**  
Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT  
**ONDDO TA PUNTO**  
www.onddotapunto.com

2 SARRERA  
**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariumss.com

**2 sarrera**

**LI  
BU  
RU  
AK**



**3 CD**  
JON ENBEITA  
Hainbeste, hain gitxi

**Lanku**  
www.lanku.eus

**DES  
KON  
TUAK  
%**

**LESAKAKO  
UDAL  
KIROLDEGIA**

LESAKA | %40, matrikulan

**Arrate Estetika Zentroa**

DONEZTEBE | %10, Skeyndor  
Eternalkremetan

**kattogorria**  
lentzeria merkatua

LESAKA | %10, lantzerian

libreria **nafarpress**  
liburudenda

ELIZONDO | %10, liburu eta ikas  
materialelan, testu liburuak  
eta DVDakizan ezik

**oreKa**  
nutrizioa eta dietetika

LESAKA | %5, kontsultan

**OGI BERRI**  
Leitza  
Kafetegi  
Okindegia

LEITZA | %5, gozotegian 25€tik gora